

# GUaiXE.eus



**Maialen Aramendia Bizkaiantxapeldun**



Kirolak >> 20

**Dantza nagusi. Ostiralean Irurtzunek Udaberriko jaialdia hartuko du eta larunbatean Altsasuk Dantzari Txiki Eguna**



Kultura >> 23

## Nafarroako Gobernua plan estrategikoarekin lotzeko erronka

Bide Berdeen Eguna igandean. Etxeberritik ibilaldia abiatuko da

>> 9

>> 5

**Irurtzungo Udalak 18 pertsona kontratatuko ditu**

>> 7

**Olaztin arkitektura oztopoak kentzeko lanean**

>> 9

**Aldazen sormen trastelekuak segida izango du**

>> 22



Enrike Zelaiaren omenezko kontzertua larunbatean izanen da, 19:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

## Musika omenaldia geinuari

>> 21



**Koxka taberna European lehiatzen**

>> 18



**S3DAK film laburra lehiaketara aurkeztu du**

>> 22



**Altsasu, asteburu bete ospakizun**

>> 3



**Maiatzak, Etxarrin, Bakaikun, Iturmendin eta Ziordian**

>> 5

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Adur eta Amaiur**  
ZORIONAK pareja!! 9 urte jada!! Malagako familia, Mikel eta Ana eta denon partetik. Segi horrela!! Muxu pila bat.



**Libe**  
Libe, 8 urte!! ZORIONAK guapisima!! Lortuko dugu zure oparia astelehenerako? Muxu pila. Etxekoak.



**Unai Rekalde Erdozain**  
Egun zoragarria pasa, etxeko izarra zara!!



**Jesusa de la Fuente**  
ZORIONAK zure 80. urtebetetzean!! Egun zoriontsua izan dezazula. Zure semeen partez.



**Ainetz Lazkoz Ginea**  
Astelehenean 5 urte beteko ditu gure etxeko mutilak. ZORIONAK ederra, egun ona pasa eta muxu pila bat familia guztiaren partez.



**Oinatz ZORIONAK!** Hamar gol sartuta ta geyo sartzeko asmotan .Altsasukuen partez.



**Oinatz ZORIONAK** Oinatz! Eskuko bietzak akatuazkigu! Etxekuen partez eta batez e Enaitzen partez, asko maite zettugu.



**Iraitz**  
ZORIONAK osaballyendien tietuko zettugu belarrirati. Ongi pasa ta segi beti bezain umoretsu izeten. Etxekuen partez muxu .

## maiatzak

# 1-7

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**Zatoz, agur (Enrike Zelaiari omenaldia).** Maiatzaren 2an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Burunda frontoian. **Haize Berriak Banda, Sakanako abesbatzak eta hainbat akordeoilari.**

**Talco.** Maiatzaren 3an, domekan, 19:30ean Altsasuko gaztetxean.

### Zinema

**Cenicienta.** Maiatzaren 1ean, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 3an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Negociador.** Maiatzaren 7an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Igandean, Altsasuko gaztetxean Talco ikusteko aukera izanen da.

### Dantza

**Udaberriko dantza jaialdia.** Maiatzaren 1ean, ostiralean, 18:00etan Irurtzunen barna kalejira eta 18:30ean jaialdia plazan edo frontoian. **Udaberri eta Orritz dantza taldeak.**

### Antzerkia

**Desmedidas.** Maiatzaren 1ean, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean.

### Ipuin kontalaria

**Euskal mitologiako ipuinak.**

Maiatzaren 7an, ostegunean, 18:00etan Olatzagutiko liburutegian. 4-11 urte. **Bakarne Atxukarro.**

### Dokumentalak

**Tximeletak, etengabeko metamorfosisa.** Maiatzaren 2an, larunbatean, 12:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Lizarrak-Altsasu.** Maiatzaren 2an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko kultur gune partetik. 92 km. **Zikloturista taldea.**

**San Adriango lezea.** Maiatzaren 3an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 43 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Ibilbideak

**Etxeberri-Lekunberri.** Maiatzaren 3an, igandean, 10:00etan Etxeberriko frontoitik abiatuta. 15 km. **Natur bideen eguna.**

### Erakusketak

**Koldo Arnanzen arte eskola.** Maiatzaren 4tik 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Heziera naturala eta osasuna.** Maiatzaren 6an, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara Irurtzungo kultur etxean. **Hizlaria: Konny Dieterich Voss. Izen ematea: 620 254 230. Amalur.**

### Bestelakoak

**Zorri azoka, merkatu soziala.** Maiatzaren 3an, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranazko estalopean.

**Gazte txokoa plazara!** Maiatzaren 3an, domekan, arratsaldean Altsasuko Foru plazan.

### Deialdiak

**Langileok borroka, Euskal Herria aldaketa bidean.** Maiatzaren 1ean, ostiralean, 12:00etan Altsasuko Foru plazatik. **LAB.**

**Erregimena zapalduz, alternatiba eraiki.** Maiatzaren 1ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Foru plazatik. **Gazte manifa. Erregimena kanpora!**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 1ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 3an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Eduernekin bat, batzarra.** Maiatzaren 7an, ostegunean, 19:00etan Gure Etxea eraikinean.

**Nesken futbol taldea sortzeko bilera.** Maiatzaren 7an, ostegunean, 19:15ean Altsasuko Gure Etxea eraikineko 1. solairuan. **SD Altsasu.**

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.eus

*Piztu irratia!*

# MAIATZAK 1 JAI EGUNA

## Hurrengo saioa maiatzaren 8an

&gt;&gt; Altsasu

# Alde Zaharra festetan

Artisau azoka, Alde Zaharreko festak eta Dantzari Txiki Eguna. Hiruek bat egiten dute asteburuan, Altsasuko Alde Zaharreko jai egitarau osatua eskaintzeko. Gainera, domekan hasi eta irailaren 14ra arte, maiatzeko gurutzetik iraileko gurutzera, eguerdiro altsasuar talde bat eliza dorrera igo eta ezkila errepikak egiten dituzte. Egun horretan Foru plazan 21 artisau postu ikusteko aukera izanen da.



Altsasuko Alde Zaharreko festetan ez da musika doinurik faltako.

## Egitaraua

### >> Maiatzak 1, ostirala

**17:00etan** Jolasak, puzgarria, txokolate jana, Foru plazan.

**18:00etan** Zirkoloretsuaren haur ikuskizuna, Foru plazan.

**19:00etan** Erregimena zapalduz alternatiba eraikiz manifestazioa.

**21:30ean** Herri afaria, gaztetxean.

**22:30ean** Desmedidas taldearen Emprendedora antzezlan, gaztetxean.

### >> Maiatzak 2, larunbata

**11:00etan** Dantzari txikien elkarretartetzea, musika eskolan.

**11:45ean** Dantzari txikien kalejira, Burundar txistulariak eta Altsasuko erraldoiez lagunduta. Musika eskolatik

abiatuta, geldialdiak: Zumalakarregi: San Joan, Iortia eta Foru plaza.

**12:00etan** Hamabitakoa gaztetxean. Ondoren triki-poteoa.

**13:00etan** Dantza emanaldia, Foru plazan.

**15:00etan** Herri bazkaria, Foru plazan.

**16:30etik 17:30era** Erromeria musika eskolako fanfarrearekin, Foru plazan.

**17:00etatik 20:00etara** Kalejira Malabanda txarangarekin.

**19:00etan** Zatoz, agur! Enrique Zelaiaren omenezko kontzertua, Burunda frontoian.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Nonahi taldearekin.

**00:00etatik 3:00etara** Danantzaldia Nonahi taldearekin.

### >> Maiatzak 3, domeka

**9:00etan** Dianak Alde Zaharrean.

**10:30etik 14:30era** Artisau azoka eta

taloak, Foru plazan.

**11:00etan** Lentzeria, ehoziri eta zeramika erakusketa, Gure Etxea eraikinean.

**13:30ean** Bildots zozketa.

**17:30ean** Ludoteka eta Gazte Txokoa plazara.

**19:30ean** Dantzaldia Sakaranga taldearekin, Foru plazan.

**19:30ean** Talco-ren kontzertua, gaztetxean.

**Oharrak:** Larunbatean, 12:00etatik 24:00etara, Gartzia Ximenez kalea oinezkoendako izanen da. Eguraldi txarra eginez gero aurreikusitako leku aldaketak: dantzari txikiak Zelandi kiroldegian, herri bazkaria Labaderon, artisau azoka Burunda frontoian eta gazte txokoa Intxostiapuntan.

## Artisauak



Lentzeria eta ehoziri udal tailerrak; Angel ardi-motzailea; Patxi Amillano gaztagilea; Concha Dieguez irulea; Javier Saralegi soka-gilea; zura lantzeko eskola; Alejandro Rellan makila egilea; Carmelo Llena pilotagilea; Pedro Carrascon aulkigilea; Itziar Nazabal oihalean margoa; Brun forjariak; Ion Dufurrena kaikugilea; Iñaki Villanueva zurgina; Rodolfo Rivero uztarri egilea; Asier

Crespo larru lanketa; Bixente Mitxelena meta egiten; Pedro A Lazkoz Marin hargina; Batuta birziklapen tailerra; Ramon Paniagua momotxorroak eta Esteban Zornoza maketagilea. Talogileak: Tiscar Duran, Maite Ilergi; Arantza Asurabarrena, Mari Navarrete, Maripi Larrea, Juanita Mazkiaran, Idoia Ganuza, Mari Jose Elizalde, Petri Garcia, Belen Rubio eta J. Luis Fernandez.

# DESKONTU ZUZENAK

Moztu eta dendan trukatu

**%10**eko  
deskontua  
jostailuetan.

Maiatzean zehar.

**KAXETA LIBURUDENDA** ETXARRI ARANATZ

**%20**eko  
deskontua  
koltxoi eta sofatan.

Irailera arte.

**HOSTOGORRI** ETXARRI ARANATZ

**%10**eko  
deskontuak

Maiatzean eta ekainean zehar.

**ASENSIO**  
ALTSASU

**%15**eko  
deskontuak  
tamaina handiko  
argazkien inprimake-

tan. Handitu zure  
argazkiak poster neurira.

Maiatzean zehar.  
**TXARTEL** ALTSASU

**%20**eko  
deskontuak  
euskal jantzietan

(neskenak bakarrik)  
Maiatzean zehar.  
**MARICARMEN**  
ALTSASU

SAKANAKO DENDARI, OSTALARI ETA ZERBITZUEN ELKARTEA



Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

## Goitik behera

Barga gainean maiatza zutik ikusteko desiota, elorrien lore zuriak paisaia edertzen, udaberriko zizak hauen oinetan, urteko sasoi eder-rradator kigu. Basoaren berdeargia atsekabearen aurka sendagai bihurtzen da udaberri bete-betean. Komunikabideen tertulien burrunbak erleenaren aldean jasangaitz,

mendiko putreak bulego eta jarleku boteretsuetakoak baino nahia-go. Lore-hautsak sortutako atija maiteago errauskailuen kiratsa baino. Beleen iskanbilak telebistaren zarata baino arinago.

Gora, mendian gora egiteko gaur egungo gaitzak ahazteko aukera dugu oraindik. Gailurre-

tik begira gauzak argi ikusteko baimena. Burukominak arintzeko, gehiegizko informazioa baztertze eta bihotzetik begiratze-ko unearen bila abiatu gaitzke haitzetan gora. Arazo pila han behean geratu dira egunerokotasunean. Agintariek nola aginduko duten, herritarrek beren bizi-

tzetan aurrera nola egingen duten, elkarren gaintetik nor nor begiratu ote duen.

Behera, mendian behera berriz ere handaude utzitako gaitzak bere lekutik mugitu ere egingabe, haiek ez baitira berehalakoan desegin-go. Erabakiak hartzea gizakien askatasun eta gehienetan pisu

astun. Gure lurra hobe izan dadin buruari biraka, ez dezagun gal oinordetzan jaso genuena. Ondorengoek ere aukera izan dezaten mendian gora egin eta elorrien lore zuri artean, behor eta ardiaren joaleen erritmora, zero urdinaren mantupean arazoez ahaztu eta gure lurra maitatzen ikasteaz.

## barrutik kanpora

# Denbora kutxak, zergatik? (II)

Aurrekoan, munduko hainbat eskualdetan denbora kutxek betetzen duten leku arituginen. Eta gaur non lantzen diren ikusiko dugu. Sevillan unibertsitatean sortu zen 2002an eta bertan ikasleak eta ikasle ohiak daude, baita gurasoak, irakasleak eta unibertsitatearekin loturaren bat dutenak edo izan dutenak.

Jerez: mundu guztiarendako

dago zabalik denbora kutxa hau. Hilabete 20 ordura mugatzen dira hartu-emanak, eta denbora gehien eman duena izaten da saritua.

Herri horretan badago beste bat ere ezgaitasun fisikoak dutenentzako.

Badalona: dolu prozesuetan daudenei laguntzeko.

Madril: kultura ezberdinetako

trukeak egiteko, eta musika integratzaile moduan erabiltzen dute.

Mallorca: enpresetan sortzen da lana familia kontziliatu ahal izateko. Lan mundutik kanpo gel- ditu direnei laguntza emateko ere bai, eta birgizarteratzeko modu malguak bilatzen dituzte.

Murtzia: publizitate enpresa txiki batean lau orduko poltsa bat dute, langile bakoitzak bere gau-

zetarako behar dituen erabil- tze. Ordu hauek ordainduta daude eta berreskuragarriak dira. Langileak dira lau ordu hauek kudeatzen dituztenak inork erabili ez izateko gehiago berreskuratu baino lehen. Urtea bukatzean, ezin da inor zorretan egon enpresarekin.

Logroño: Cultura y Comunicación fundazioa da denbora kutxa

kudeatu eta finantzatzeko duena Logroño unibertsitatearekin batera.

Cajamar: duten helburua da bankuko langile, jubilatuen, senide eta lagunaren arteko zerbitzuen trukeak egitea.

[larrezabaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezabaldk@inigoaritz.com)

## hara zer dien

# Gestalt Terapia

Azkenaldian, batek baino gehiagok galdetu dit Gestalt izeneko terapia hau zertan datzan, izena nahiko ezaguna egiten zaie, baina ez dakite zertan oinarritzen den eta artikulua hau gai honi buruz idaztea bururatu zait.

Hasteko, psikoterapia egiteko modu bat izateaz gain, garapen pertsonalerako bide edo tresna bat ere badela esan nahiko nuke. Pertsonaren osotasuna kontuan hartzen du, bere alderdi ezberdinetan: gorputza, emozioa eta adimena eta alderdi hauen integrazioaren alde lan egiten du.

Aurrekomendearen erdialdean sortu zen Fritz eta Laura Perlsen eskutik, eta eragin ezberdin uga-

ri uztartzen ditu, hala nola, Gestalt psikologia, pentsamendu fenomenologikoa eta existentziala, psikoanalisisa, Wilhem Reich eta honek gorputzarekin egindako lana, antzerkia eta psikodrama, meditazioa... Psikologia humanista deituriko korrontearen barruan kokatzen da.

Bere helburuetako bat, pertsonaren benetakotasunera iristea da eta terapia bat izateaz gain, bizitzeko jarrera bat ere bada.

Terapia mota honek oinarri ezberdinak ditu, eta batzuk aipatuko ditut labur-labur:

- Hemen eta orain, momentuko esperientzia eta bizipenetik arreta nola galtzen dugun lan-

tzen da.

- Konturatzearen edo kontzientzia hartzearen garrantzia. Konturatzea bai gure barrenean bai gure ingurunean gertatzen denaz ohartzeko gaitasuna da, eta, terapia honen bidez, gaitasun hori areagotzea bilatzen da.

- Nork bere ardura hartzea.

- Esperientziaren bizipena hobesten du (mingarria izan daitekeena saihestea baino hobe)

- Organismoak bere oreka bilatzeko daukan jakiturian konfiantza du.

**Narrea Iraurgi Arrieta,**  
Psikologoa eta Gestalt terapeuta

## objektibo tik



objektibo tik: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.net](mailto:kirolak@guaixe.net)  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Felix Alzelai  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

&gt;&gt; Etxeberri / Arakil

# Bide Berdeen eguneko ibilaldi bat Etxeberritik abiatuko da

**Igandean, 10:00etan Etxeberriko frontoitik Lekunberrira arteko 15 km-ak Plazaola ibilbidean barna egiteko gonbitea luzatu dute**

Plazaola Turismo Partzuergoak, Lekunberriko Udalarekin batera, Lekunberrin Bide Berdeen eguna antolatu du igandeko. Plazaola natur bidearen ertzeko zazpi herrietatik Lekunberrira joateko beste horrenbeste ibilaldi abiatuko dira igandean eta haietako bat da Etxeberrin hasiera duena. Bideari ekiten diotenen Aixitako bidea hartuko dute, Arrantzaleen Bidetik barna Kaxarna parean Plazaolako bide berdearekin bat egiteko.

Parte hartzea librea da. Baina, igandean bertan, 9:30etik aurrera Leitzako, Lekunberriko edo Lata-



Bi mendizale Etxeberrin Aixitarako bideko mapa begiratzen. ARTXIBOA

sakogeltokietan izena ematen dutenek tiket bat jaso eta Lekunberriko geltokian jan-edanak dohainik izanen dute 12:30etik aurrera. Behin Lekunberrin artisau azoka, puzgarririk, turismo-trena eta bisita gidatuak izanen dira.

1994an partzuergoa sortu zenetik, Plazaolako bide zaharraren berreskurapena sustatu da, eta azpiegitura eta eskaintza turistiko erakargarriak sortuz eskualdea eta bertako produktuak ezagutuz dira. Igandean partzuergoan parte hartzen duten udalek turismoarekiko egiten duten apustua ospatzen da, eta esker ona ematen zaie bazkide berriei, aurten Arakilgo Udalarari.

## Plazaola bide berdea

Gaur egun 32 km daude Nafarroan, eta 22 km Gipuzkoan. Irurtzun eta Iruña arteko udalez gaindikoa proiektua bideratua dago. Joan zen urtean Irurtzun eta Saratsa (9,5 km) arteko desjabetzerako espediente hasi zen, egikaritzeko proiektua osatu zen eta finantzazioa eskatzeko beharrezko baimenak bideratu zituen partzuergoak.

Nafarroako Gobernuaren Turismo Sailak Plazaolako bide berdeari A mailako turismo baliabide izendapena emandio. Baliabide garrantzitsua da, etorkizunean estatuko gainerako probintziak Europarekin lotzea ahalbideratuko baitu Eurovelo proiektuari esker. Proiektu horren helburua Europa bide berdeen eta bizikletan ibiltzeko ibilbideen bidez lotzea da.

&gt;&gt; Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi / Ziordia

## Lau maiatz jasoko dira

**Hostoa haitz gainean dagoela, azienda mendira igotzeko garaia iragartzen duten maiatzak jasotzeko eguna iritsi da. Sakanako lau herritan hartuko dute lan hori maiatzaren lehen egunean**



Etxarriarrak pago enborra Hartzabalentzuzutitzeko lanari 12:30 aldera ekinen diote. Ordurako bakaikuarrekeuren lana despidituta izanen dute, eguerdian hasten baitira mendia gainean maiatza jasotzeko langintzan. Iturmendiarrak, berriz, herrikoplazan jasoko dute 20 metro luze inguru izanen duen pago enbor handia. 18:00etan jarria dute hitzordua. Asteburuan kintoak haren bila joan ziren. Jasotzeko azala kenduko diote. Hilabetea plazan eman ondoren bota eta ateratzen den egurren dirua kintoendako izanen da.

### Aldaketak Ziordian

2000. urtean berreskuratu zuten maiatza jartzeko ohitura Ziordian. 2007ra arte, etenik gabe, herrian jarri zuten maiatza. Ondorengo

urteetan ez da jarraipenik izan udalaren eta herritarren arteko iritzi ezberdinak zirela eta. Hala ere, urtero Ziordia Bizirik ekimenak ekitaldiren bat antolatu izan du, sinbolikoa bada ere.

Aurten erabateko aldaketa izanen da, maiatza barga gainean jarriko baitute. Ziordia Bizirik-ek herritarrek 9:00etarako deitu ditu. Barga igo eta eguerdian maiatza igotzen hasi nahi dute. Hango lanak despiditu ondoren, herrira jaitsi eta txipudegian txikienek maiatza txikia jasoko dute. Egitaraua osatzeko herri bazkaria izanen da, eguraldi ona badago txipudian eginen dena, eta bestela elkartean.

SAKANA



Nafarroan euskaraz bizi nahi dutela adierazteko elkartu ziren euskaltzaleak Anaitasunan.

## Makina bat sakandar Anaitasunan

**Etorkizunako dantzariak eta Maialen Huarte eta Anabel Arraiza aurkezleak oholza gainean eta hainbat eta hainbat sakandar harmailetan izan ziren**

Emozioz betetako ekitaldi beroa antolatu zuen Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak larunbatean Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Nafarroan euskaraz bizitzaren aldeko aldarria egin zen. Hizkuntzak aurrera egiten lagun-

du duten nafar guztiak omendu eta hizkuntza politikan aldaketaren beharra agerian utzi zuen Kontseiluak.

Haren idazkari nagusi Paul Bilbaok hizkuntza berreskuratzeko lau zutabe sendo behar direla adierazi zuen: lege marko egokia, hizkuntza politikaren planifikazioa, baliabide egokiak edo inbertsioa eta, azkenik, komunitatea. Kon-

tseiluak adierazi zuenez, komunitateak euskaraz bizitzeko gogoak du. Gainontzeko hiru zutabeak administrazioaren ardura dira. Bilbaok ziurtatu zuenez, "hiru zutabe berri eraiki behar dira, eta horrela, bai, Nafarroan aldaketa izanen da". Anaitasun elkartu ziren guztiei euskararen aldeko lanean segitzeko gonbitearekin despiditu zen ekitaldia.

**ZORROZTU  
ZURE  
ETORKIZUNA**

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldia** gonbidatzen zaitu.

Ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza.

• Erdi Mailako zikloak • Goi Mailako zikloak • Oinarrizko LH

**Maiatzak 9, larunbata, 10:00etan**

[www.goierrieskola.org](http://www.goierrieskola.org)

Zeure begiz ikus ezazu.  Klik batekin informa zaitetz.



**Goierri**  
eskola

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

## &gt;&gt; Olatzagutia / Sakana

## Sakanako herri eskolen festarako atzera kontua



Aurkezpena bertsotan egin zuten.

**Maiatzaren 9an ospatuko da, Olatzagutian. Herri bazkarian izena emateko epea astelehenera arte dago zabalik eta horretarako guraso elkarteetara jo behar da**

Altsasuren lekuko Olatzagutiak hartuko du aurten eta maiatzaren 9an Sakana Herri-Eskolekin Sortzen jaialdia hartuko du. Ospakizunaren aurkezpenean Olatzagutiko hezkuntza komunitatetik

azaldu zuten, "eskola eta herria bat garelako, denen arteko parte-hartze aktiboa sustatzea da jai honen helburua: Eskola kalera ateratzea, bere bertute eta aberastasuna erakutsiz". Gaineratu zuten, "herri-eskolen eta sare publikoaren erreferentzia indartu nahi dugu, haien arteko elkar-lana sustatuz eta aktibatuz".

## &gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Zorri Azokaren hitzordua

**Igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranatzko plazan**

Hileko lehen igandero moduan Zorri Azokak bere salmahaiak Etxarri Aranatzko plazan zabalduko ditu. Handik pasatzen denak artisautza, barazki ekologikoak, bertako produktuak, artea, erakundeen informazio eta zabaltze gunea, musika eta bestelakoak opatuko ditu. Hila-bete honetan gonbidatutako postua zilarrezko bitxigintza egiten duen Y-Poranga tailerra izanen da. Ohi denez, truke txokoa jendeak eramandako arropa, liburuak, diskoak edo bestelakoak elkar trukatzeko aukera izanen da. 13:30ean, aldiz, Zorri Azokako produktuen lotea zozketatuko da.

**Harremanetarako:**

zorriazokainfo@gmail.com

## &gt;&gt; Altsasu

## Elikadura osasuntsua gaitz kronikoetan

**Pazienteen Eskolak maiatzaren 20an, 25ean, 27an eta garagarriaren 2an, 17:00etatik 19:00etara, Gure Etxea eraikinean tailerra emanen du**

Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteei eta haien senideei zuzendutako tailerra da Paziente Eskolak antolatutakoa. Haien osasuna eta ongizatea hobetzea du helburu tailerrak. 10 eta 15 parte-hartzaile artean onartuko dira tailerreak.

Saioak Pazienteen Eskolarekin lankidetzan ari den irakasle talde batek emango ditu, osasuneko 9 profesionalek osatuta, bai eta adituak diren 9 pazientek ere, haiek guztiak horretarako bereziki prestatuta daudenak. Lan-metodologiaren barnean sartzen dira: hitzaldiak, eztabaidak, kasuen azterketak, ariketak, esperientziak partekatzea..., talde txikietan nahiz gela osoarekin.



Jendea Altsasuko azokako fruta salmenta postu aurretik pasatzen. ARTXIBOA

**Nafarroako Pazienteen Eskola**

Tailerrak Nafarroako Pazienteen Eskolako jardueretako bat dira; iragan martxoan jarri zituzten abian, eta haien helburu nagusia da gaixo kronikoen eta haien senide zein zaintzaileen osasuna eta

ongizatea hobetzea. Gaitz kroniko bat diagnostikatzen denean sortzen diren beharrak jorratu nahi dira eta, horretarako, zenbait alderdi hartzen ditu, adibidez: patologiari buruzko informazioa, norbere buruaren zaintzarako eta farmaziako tratamendurako tre-

**Informazioa eta izen ematea**

848 42 19 54 zenbakira hotseginenez, 8:00etatik 15:00etara, edo [escueladepacientes@navarra.es](mailto:escueladepacientes@navarra.es) e-posta helbidera idatziz.

betasunak garatzea, bai eta diagnostikoaren aurrean sortutako emozioak erabiltzen jakitea ere.

Hala, prestakuntzako ekintza batzuk eskaintzen ditu: tailerrak, ikastaroak, aurrez aurrekoak nahiz on-line bidezkoak, eta 1988. urtetik osasun-zentro publikoetan egiten diren ekintzak osatzen dituzte. Pazienteen eskola Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Osasuna Sustatzeko Atalak koordinatzen du, eta pazienteen nahiz lehen-mailako arretako elkarten lankidetzatza du.

>> **Ezkaban hildakoei omenaldia**

Urtero moduan Txinparta elkarteak 1936ko estatu kolpearen ondoren Ezkabako espetxean hildakoak omentzeko ekitaldia egingen du. Aurten maiatzaren 17an izanen da, eguerdian. Mendiko espetxean azken hildakoei euren agiriak botila batean zituztela lur eman zieten. Hori gogoan, omenaldiko parte-hartzailei botila baten barruan mezu bat sartu, ekitaldiko oholtzan utzi eta bukaeran beste bat hartzeko eskatu dute. Aldi berean, bazkarira gelditu nahi duenak Laboral Kutxaren ES57 - 30350162791621060055 kontu korrontean izen-abizenekin batera 18 euro sartzeko eskatu dute. Elkarte antolatzaileak plazak mugatuak direla aurreratzen du.

**ETXARRIARRA**

Vicente Huarte Mercero 1941eko apirilaren 21ean hil zen Ezkabako preso degian.

## &gt;&gt; Irurtzun

## Arkupeko azoka

**Irurtzungo Elikagai Bankuaren aldeko 903 euro eskuratu ziren**

Udaberriko bigarren eskuko azoka plazan egitea erabaki zuen Itxipuruk. Eguraldiak ez zuen lagundu eta, horregatik, arkupeak material bezala bete zituzten. Akaso eguraldiak eraginda aurrekoaldietan baino jende gutxiago ibili zen bigarren eskuko azokan. Produktu salduena arropa izan zen beste behin. Akaso Liburuaren Egunaren gertutasunagatik liburu

asko eraman zituzten azoka bisitatu zutenek.

Guztira 903 euro eskuratu ziren igandean. Horri biharko elkartasun afarian aterako direnak gehitu beharko zaizkio baita Itxipuruko kontu korrontean egiten diren ekarpenak ere. Jasotako dirua Irurtzungo Elikagai Bankua hiru hilabetez esnez eta olio hornitza bideratu nahi da. Bankuak martxoan 60 familia (200 pertsona) elikatu zituen.



Arkupetan hartu zuen aterpea bigarren eskuko azokak. ARTXIBOA

## &gt;&gt; Altsasu

**Etxerako egur loteak eskatzeko epea zabalik**

Maiatzaren 15era arte zabalik dago etxeetarako egur lotea eskatzeko epea. 150 lote dira gutxi gorabehera udalak banatuko dituenak. Guztietan zuhaitzak zutik daude. Udaltetik jakinarazi dutenez, Altsasuko familia unitate bakoitzak eskaera bana egin dezake. Udalak banatuko dituen egur loteak 4.000 kilo ingurukoak izanen dira. Haiek Martin Sagastin, Marmolazpiko pistan, Arbotonesen, Ameztiaren eta Basoixin daukete. 20 euroko tasazioa dute loteek. Betebeharrak betetzen dituzten altsasuarren artean udalak zozketan emanen dituzte loteak.

**SAKANA****Institutuko ikasleak NUPen bisitan**

Aralarko Mikel Donea institutuko batxilergoko 2. mailako 18 ikasle gaur Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) Iruñeko Arrosadia kanpusa ezagutu dute. Javier Dronda irakaslearekin batera joan dira Iruñera eta bisita horrekin unibertsitatearen hezkuntza eskaintza ezagutzeko aukera izan dute. Heldu den ikasturterako NUPk 18 gradu eta bi gradu bikoitz eskaintzen dizkie.



## » Arakil

**Aralarko aingerua lagun, Oskia erromesaldia**

Ohi denez, maiatzaren aurreneko egunean arakildarrek Oskia ermitarako bidea hartuko dute. Aralarko aingeruaren irudia lagun izanen dute bide horretan. Arakilen barnako ibilbidea 9:00etan hasiko du goiaingeruaren irudiak. Zuhatzun ordu laurden geroago izanen da. 9:30erako Ekain izanen da. Etxarrenek hamarrak baino pixka bat lehenago espero dute. Handik Urriazola jokodu, 10:20an iristeko. Izurdiaga izanen da Aralarko aingeruaren azken aurreko geldialdia 10:45ean. Errotzera 11:10ean iritsiko da. Arakildarrak azken herri horretan elkartu eta erromesaldia Oskia harrateko ermitara abiatuko dira, 11:40an. Eguerdian meza hasiko da ermitan.



Oskia harratean dago ermita.

## » Irurtzun

**Udalaren trantsizio aurrekontua**

18 pertsona kontratatuko ditu aurten udalak

Irurtzongo Udalak aurtengo 1.892.586 euroko aurrekontua onartu zuen martxoaren 3an egindako bilkuran. Joan den urtean baino 22.500 euro gehiago kudeatuko ditu, beraz, aurten udalak. Txiki Iriarte alkateak azaldutakoaren arabera, bi arrazoirengatik "trantsizio" aurrekontuak dira: garrilean udal berria egonen da eta ez da aldaketa handitarako garaia. Legegintzaldiko aurreko aurrekontuetan bezala aurtengotan ere gizarte zerbitzuetarako, enplegua sortzeko eta taldeendako diru-laguntzetarako diru-sailak mantendu dira.

Aurrekontuko 144.000 euro 18 pertsona kontratatzeko bideratuko ditu Irurtzongo Udalak. Haiek Iturraskarri programaren barruan ariko dira urteerdiz. Udalak launa kontratazio eginen ditu Gizarte Enplegu Babestuko programaren bidez eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzarekin. Igerilekuen sasoirako udalak mantenu lanetarako langile bat eta lau sorosle kontratatuko ditu.

Mantenu lanetarako eta kaleak



Irurtzundarrak plaza inguruan. ARTXIBOA

**Diru-sailak**

Kultur kontseilua	50.000
Karpa erosi	35.000
Kiroldegiko aldageletako berogailua berritu	10.350
Kirol jardueretarako diru-laguntzak	20.000
Euskararen sustapena	11.000
Kirol erakundeendako laguntzak	8.950
Kultur erakundeendako laguntzak	8.500

garbitzeko zuzeneko sei kontratu eginen ditu udalak. Haien egiteko etako batzuk Montikoko bi gunek bateratzea eta Plazaolako zubian eta Artadiako bidean konponketak eginge izanen dira. Azken biak aurrekontu parte-hartzaileetan jasotako proposamenak ziren. Han jasotakoa zen igerilekurako sarbidea hobetzea

ere. Horretan saiatuko da udala. Aurreikusitako lanen artean badaude honako konpontze eta egokitze lanak ere: Bi Aizpe kalearen atzeko aldeko euri ur eta ur beltzen sarea; Ardubil eta Kale Berrietako galtzadarriak, etxe merkeetako bideko zartadurak eta herri sarrerako biribilgunea.

2015EKO ERRENTA AITORPENA



Agencia Tributaria  
www.agenciatributaria.es

# Bazkide hori!

## Berreskuratu ezazu kuotaren

# %25a!

**bierrik**  
fundazioa

Eska ezazu errenta aitorpenerako ziurtagiria: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net) edo 948 564 275

Foru plaza 23, 1. solairua · Altsasu

## &gt;&gt; Olatzagutia

**Portlandgo langileen lan osasunerako eskubidea aldarrikatzen**

**Enpresak lan istripuak falta larritzat hartzen ditu eta langileei santzioak jartzen dietela salatzen dute**

Cementos Portland Valderrivas (CPV) enpresako langileek ordu bateko lan uztea egin zuten astelehenean, ELAk eta CCOOk deituta (UGTk ez zuen deialdiarekin bat egin). Nahikoa da. Gure osasuna ez da salerosteko leloa zuen pankartaren atzean egin zuten kontzentrazioa. Enpresa batzordean gehiengo duten bi sindikatuek jakinarazi zuten, “CPV eta mutua elkar hartuta ari dira lan istripuen ondoren. Daukan arrisku guztiarekin, langileak beste



Portlandgo zuzendaritzari angileen osasunarekin ez jolasteko exigitu diote.

lanpostu batean birkokatzen dute, edo opor egunak hartzeko eskatzen diote”.

Enpresa batzordetik nabarmendu dute langileak txostenetako zenbaki hutsak baino, “duin-

tasuna duten pertsonak” direla. CPVri lan istripuak ez errepikatzeko neurriak hartzeko eskatu dizkiote. Baita santzioak kentzeko ere. Baina aldean arteko bilera alferrik izan zen.

Azken urtean hartutako jokatzea azken aldian okertu egin dela nabarmendu zuten enpresa batzordetik. Eta bi langileri lau eta bost eguneko isunak jarri dizkiotela azaldu zuten. Gertaerak duela hilabete Lan Ikuskaritzan salatu zituzten, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Hiru bajekin kaleratuak izan daitezkeela gogora ekarri zuten. “Langileak bajak ez

hartzeko edo haiek ezkutatzeko presioa jasaten ari gara”. Lan istripu bat ezkutatu ondoren, osasun egoera okertu eta orain operatu beharra duen langile baten adibidea jarri zuten. Halako egoera gehiago ez errepikatzeko, gainontzeko lankideak lan osasunerako eskubidearen alde batzera animatu zituzten.

112

Olatzagutiko porlandegian lanean ari diren langileak.

## &gt;&gt; Altsasu

**Lantegi okupazioa, sistemak kaltetuenak gazteak direla salatzen**

Ostiralean gazte talde batek hutsik dagoen Recinsa lantegiaren okupazio sinbolikoa egin zuen. Erregimena kanpora dinamikaren baitan kokatutako ekin-tza izan zen. Harekin gazteek Sakanak bizi duen “krisiaren erantzule zuzenak”, besteak beste “kapitalismoaren morroi diren UPN-PSNren erregimena besterik ez direla salatu zuten. Nafarroako Gobernuari enplegua sortzeko eta mantentzeko konpromisorik azaldu ez izana leporatu zitoten.

Sistemak eskaintzen dituen aukeren aurrean “Sakanako gazteok argi dugu bizi ditugun baldintzak irauli eta gure bizi eredu propioak eraikitzeko salto egin behar dugula”. Horregatik, “zapaltzen gaituen sistema kapitalista honen aurrean burujabe



Lantegiaren okupazio sinbolikoko une bat. UTZITAKOIA

izan eta gure erabaki propioak hartzeko konpromisoa” hartzera deitu dute. Horretarako, “ezinbestekoa” jo dute “borroka eta inda-

rrak batzea, bailara moduan aurre egiteko”. Maiatzaren 1eko borroka egunean parte hartzeko deia ere luzatu dute.

**Lan prekaritatearen salaketa**

Lan Osasunaren Eguna aukeratu dute Sakanako hainbat gaztek bizi duten lan prekaritatea salatzen. Mutua Navarra enpresak Altsasun duen bulegoan “prekaritatea hiltzailea” zioen pintaketa egin dute eta odol hustutako langile baten irudia, panpin bat, utzi dute. Gazteek maiatzaren 1ean deituak dauden mobilizazioetan parte hartzera deitu dute. Aldi berean, “Nafarroan erregimena kanporatzeko behararen aurrean gazteria aktibatzen deia luzatu dute”, maiatzaren 16ko Iruñeko manifestaziora deituz Sakanako gazteak. CCOOk hango langileei babesa azaldu eta halako gertaeren kontra azaldu da: “gobernuaren eta enpresen politiken kontrako jarrera ezin da inolaz ere azaldu mutuetan lan egiten duten langileak erasoz”. CCOOk adierazpen askatasuna “arduraz eta pertsona guztiekiko errespetuz” erabiltzeko deia egin du: “langileak ez dira entitateen babesa eta haien jardun profesional askeak errespetua merezi du”.

## &gt;&gt; Urdiain

**Robotika eta proiektu zientifikoaren aurkezpena**

Urdiaingo eskolako 6. mailako ikasleak

Aurtean robotika txapelketa batean izena eman genuen. Lehenengo, lan bat prestatu genuen txapelketan parte hartu ahal izateko. Lan hori, hiru zatitan banatuta dago: proiektu zientifikoa, stand-a eta proiektu teknikoa. Egin genuen lanarekin, hogeita zortzi taldeetatik zortzigarrenak geratu ginen.

Txapelketa bukatzean, familiariekin, Urdiaingo jendeari eta beste herrietako jendeari gonbidatzea bururatu zitzaigun. (...) Egun bat lehenago, proiektua aurkezteko Urdiaingo udaletxean eskaera orri bat bete genuen behar genituen aulkiak eskatzeko. Aulkiak ekarri zituzkigutenean, gela prestatu eta entseatu genuen.

**Aurkezpena**

Apirilaren 21ean, asteartean, (...) gutxi gora behera, berrogeita bost pertsona inguru etorri ziren. Gelan proiektu zientifikoa aurkeztu genuen, diapositibak pasatzen joan ziren. Bakoitzak ondoren zekiena esan zuen eta jendearen aurpegiak ikusita beraien gustukoa izan zela zirudien.

Patiaoan suziriaren esperimentua (bikarbonatoarekin eta ozpinarekin) egin genuen. Guk prestatutako esperimentu bat zen oso ondo ateratu zitzaigun ia “ilargira iritsi zen!!!” jendea harrituta geratu zen.

Ondoren, Aitziber elkartearen (...) robotika zer den azaldu genien. Gero, robotak eta robotak egiten dituen probak erakutsi eta azal-



Robotika landu duten ikasle urdiaindarrak. UTZITAKOIA

du genizkien. Hori egin eta gero, (...) unibertsoari buruzko jokoak, materialak eta aurkezpenak erakutsi eta azaldu genizkien.

Han maketaren inguruan azalpen zehatzagoak eman genituen.

Baita guk material birziklatuekin egindako planeten mugikaria ere erakutsi genien.

Eskerrak eman nahi diegu etorri zen jende guztiari, gure gurasoei asko lagundu gaituztelako

eta proiektu honetan lagundu gaituzten guztiei: eskolako gurasoei eta herriko jendeari. Bukatzeko udaletxeari gure proposamenak kontuan hartzeagatik eskertu nahi diegu.



## SAKANA

# Nafarroako Gobernua ibarreko garapenean inplikatzeko ahaleaginean segitzera

**Sakanako Plan Estrategikoa garatzeko foru administrazioaren parte hartzea bilatzen segituko da aurten. Joan den urtean lantzen hasitako ildoei segida emanen diete**

Legegintzaldia bukatu arte, azken unera arte saiatuko dira. Eta, bestela, Nafarroako Gobernu berriarekin ahaleginduko dira Sakanako Sozioekonomia Behatokiakidetak. Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) behar bezala garatzeko Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea ezinbesteko jo dute. "Foru administrazioarekin elkartu eta SPE aurrera egiteko hark zer nolako parte-hartzea izan dezakeen, elkarlan protokoloa eta eman ditzakeen baliabideak zehazteko negoziazioa da aurreko behatokiak egin nahi duena. "Azken finean, Parlamentuak eskatu diona betetzea", laburbildu du Iker Manterola garapen agenteak. "Baliabideak izanda plana azkarago gauzatu litzateke".

Sakanako Sozioekonomia Behatokiak horixe adostu zuen apirilaren 20an egindako bileran. Aldi berean, Behatokiak joan den urtean SPE garatzeko Cederna-Garal-



Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren azken bilera.

rrek eta Sakanako Garapen Agentziak egindako lanak ontzat jo zituen. Garalurrek bere gain hartu du ekintzailetasuna Sakanan sustatzeko ardura. Horretan sakondu du ekintzaileei arreta eskainiz eta hezkuntza arloan ekintzailetasunaren sustapena eginez.

Sakanako Garapen Agentziak, bestalde, lau ildo eta bi zeharkako landu zituen. Turismo arloko

ekimen publiko eta pribatuen arteko sinergiak sortzeko lan egin zuen. Eta Bidelagun elkartea emaitza nabarmenena izan zen. Energiaren arloko ikerketak abiatu ziren. Bestetik, Sakanako industriaren gaitasun teknologikoaren ikerketa egiten ari dira, horrek etorkizunean lantegien artean elkarlan eta berrikuntza aukerak eman ditzakeelako, baita etorkizu-

nerako dituzten beharrak definitu ditzakeelako ere. Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkartearen sorreran laguntza eman zutela aipatu zen bileran. Elikadura arloan, azkenik, tokiko azken indartzea eta herri baratzen langintza aipatu ziren. Azkenik, ibarreko ondareak eskaintzen dituen baliabideak hezkuntzan nola erabili aztertzen hasiak dira.

## Mendialderako garapen lokaleko estrategia

Europak Landa Garapenerako Proiektuak sustatzen eta diruz hornitzen ditu. Nafarroak berea egin beharra du, eta hori eskualdeko garapen ari da. Nafarroako Mendialdeko garapen lokaleko estrategia gauzatzeko Cederna-Garalurren ardura da. Mendialdeko estrategia horri Garalurrek Sakanako Plan Estrategikoa gehitu dio.

Susana Mendinuetak azaldu digunez, martxoaren 23an egindako bileran jarduerako ildo nagusien gaineko bilera egin zen. "Estrategia garilean edo aurkeztuko diogu Nafarroako Gobernuari. Ondoren ildo horiek garatzeko ekimen zehatzak zerrendatu beharko dira". Gauzak ongi Nafarroako Landa Garapenerako Proiektua heldu den urtean indarrean izanen da, 2020ra arte. Helburua Nafarroako Mendialdea "lurralde lehia-korragoa, berritzaileagoa, ekonomikoki eta ingurumenerako iraunkorragoa eta berdintasun printzipioekin adeitsuagoa izate da".

## >> Olatzagutia

# Hirugarren urtez arkitektura-oztopoak kentzen

**Lanen hirugarren fasean, kaleen konponketarako 60.000 euro bideratu ditu udalak**

Olatzagutiko Udalak aurten 1.842.900 euro kudeatuko ditu, joan den urtean baino 85.310 gehiago. Kiroldedia eta igerilekuak kudeatzen dituen Erburua Olazti enpresa publikoko 187.100 eta Udala Musika Eskolako 41.310 aurrekontua gehituz gero, 1.927.310 euro kudeatzea aurreikusen du udal olaztiarrak. Zerga kontrolerako plana 2012an indarrean jarri zuen udalak. Haren bidez azken lau urteetan Jarduera Ekonomikoen Zerga, herri-lan handiak eta enpresa elektrikoaren tasa errepasatu dituzte eta likidazio osagarriak, diru sarrera berriak izan ditu udalak.

Gurutze Rodriguez alkateak esan digunez, aurrekontuak egi-

terako irizpidea udalak zerbitzuak mantendu eta aurretik egiten ari ziren hobekuntza lanei segida ematea izan da. Joan den urtekoen antzekoak direla gaineratu du. Udala aurki berrituko dela eta "trantsiziozko zat" jo ditu.

### Lanak

Kontratazioei dagokienez, kisu-gilea eta peoia kontratatu ditu udalak. Sei hilabeteko kontratua dute eta hainbat lan egingen dituzte. Baso lanak egingen dituen peoia hiru hilabetez ariko da. Kontratazio horiek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntza egin ditu udalak. Horietaz aparte, Udala Euskaraz kanpainarako eta igerileku sasoirako kontratazioak egingen ditu udalak.

Hirugarren urtez kaleetako



Arkitektura oztopoak kentzeko lanek segida izan dute aurten.

arkitektura-oztopoak kentzeko lanak egiten ari da Olatzagutiko Udala. Aurrekontuan jasotako lanen artean daude, bestalde, esko-

lako patioko hesia eta Haur Hezkuntzako gelako zorua aldatzea. Txikiek ikastetxearen eremutik ez ateratzeko egingen da lehena eta

Diru-sailak	
Erburua Olazti SL	187.100
Festak	75.000
Baso-lanak	65.000
Kale konponketak	60.000
Zergen kontrol plana	50.000
Kultura jarduerak	45.000
Musika eskola	41.000
Kale argiteria	31.000
Langabeak kontratatuzko	26.000
Harrobietako ez-tandean neurketa	20.000
Kirol ekintzen sustapena	15.500
Hobekuntzak kultur etxean	15.000
Bide konponketak	10.000

umeendako erosotasunagatik bigarrena. Horretaz aparte, dermioko bide batzuk konpontzea, haien bazterrak garbitzea eta basoan dauden lau zubi indartzea eta zabaltzea. Azken lan hori ibilgailuak hobe pasa daitezkeen egingen da.

Udalaren web orrian, [www.olazti.com](http://www.olazti.com)-en, aurrekontua kotsul-ta daiteke.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

*Zatoz gure ardotezia ezagutzera!*

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279  
[hijosdegoikoetxea@yahoo.es](mailto:hijosdegoikoetxea@yahoo.es)

Ogiaren artisauak

**PORTUKO**  
okindegia

Espelta ogia egiten dugu. Aurretik eskatu!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

## Udal hauteskundeak

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

## EH Bilduk 95 puntuko programa aurkeztu du

Etxarriko EH Bilduk udalerako hautagaitza asteazkenean aurkeztu zuen. Eta harekin batera herri-programaren ildo nagusiak aletu zituzten. Eneka Maiz alkate-gaiak udalean aurrera eraman nahi duen programaren lanketan 35 etxarriar aritu dira, bederatzi lantaldetan banatuta. 17 arlotan 95 puntu zehatz proposatzen dira.

Bilduren sorrerari aipamena eginez esan zuten, “urteetan elkarri bizkar emanda bizi ginen herri-tarrak gure indarra batzea erabaki genuen, herrigintzan aurrera egiteko. Herritarren parte har-



Pasa den asteazkenean aurkeztu zen Etxarriko EH Bilduren zerrenda. UTZITAKOIA

tzea eta burujabetza oinarritutuen politika eredu berria ekarri genuen”. Herrian eta ibarrean horretan segitzeko nahia azaldu

du EH Bilduk. Bestalde, maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako hautestontziak “aldaketaz, denondako kudeaketaz, etorkizunaz, geure erabakietaz” betetzeko deia egin du.

## Ildoak

Kolore banarekin izendatu dituzte koalizioak bederlatziak. Lehena gorria da eta bere baitan udalaren ogasuna, gizarte zerbitzuak, hiri-gintza eta herri lanak eta udal zerbitzuen kudeaketa daude. Kolore urdinarekin Etxarri gardena dena izendatu dute: parte-hartzea, komu-

nikazioa eta kudeaketa gardena. Kolore berdea energia burujabetza- ren, uraren, hondakinen eta basogintzaren kudeaketari eman dio.

Udalak garatu beharko lukeen politika feministak kolore morea du. Koloretako Etxarri izendapenak Etxarriko EH Bilduren euskara, hezkuntza eta kultura eta kirol proposamenak jasotzen ditu. Txuri, gorri, berdeak, aldiz, erabakitze eskubidea, nazio eraikuntza eta gatazka politikoaren konponbidea hartzen ditu bere baitan. Laranja kolorea du tokiko garapena, herria eta ibarra kontuan hartuz.

&gt;&gt; Altsasu

## Geroa Bai ezberdinen arteko akordioa aldarrikatu du

Uxue Barkosen eskutik Altsasuko Geroa Bairen zerrenda buruaren aurkezpena egin zuten ostiralean. Bai parlamenturako zerrenda buruak bai Altsasuko alkate-gai Javi Ollok, “norberaren printzipioak mantenduz ezberdinen arteko akordioa” aldarrikatu du. Altsasu bezala, udal berria anitza izanen dela adierazi du eta akordio-

aren ideia errepikatuz “batzen gaituen Altsasu da” esan du.

24 urteko alkate-gaiak politikaren apologia eginez hasi du bere hizketaldia, beharrezkoa dela aldarrikatuz. Aipatutako ezberdinen arteko akordio hori erregeneraziorako tresna izan behar duela nabarmendu du. Altsasuko Geroa Baik bere zerrendan

erregenerazioa gertatu dela nabarmendu du Ollok: “berritu egin dugu, baina esperientzia ere badago, eraginkortasuna mantentzeko”. Udal programan, kontratua deitu dio Ollok, garapen sozio ekonomikoa, pertsonen arrisku egoerak eta gardentasuna eta parte-hartzea oinarri izanen direla aurreratu du.



Javi Ollo eta Uxue Barkos, Geroa Bairen alkate-gaia eta presidente-gaia.

## SAKANA

## PP bere alkate-gaiak aurkeztu ditu

PPk Nafarroa iparraldeko popularren alkate-gaiak aurkeztu zituen Etxarri Aranatz larunbatean. Haiekin batera, popularren parlamentuko eta udaletxe-ko zerrenda-buruak Ana Beltran eta Pablo Zalba izan ziren. PPren Sakanako Eskualde Batzordeko buru eta Etxarri Aranatzko alkate-gai popular Juan Antonio Extremerak adierazi zuenez, “printzipioen eta balioen politika” egiteko asmoa adierazi zuen, baita

“bizitza errespetuarena, eskualde honek babes gehiago eman diotelako hiltzaile etarrei ETako biktimei baino”.

Extremerak “banda terroristaren biktimei eta haien familiei erabateko babesa” azaldu zien. “Hautestontzietan erregimen nazionalista erradikalarekin bukatzeko garaia da, beldurra, inposizioa eta biolentzia babesten dutenen apologia dagoelako”. Sakanako Nafarroako motore ekono-



Ezkerretik 3.a Carlos Lopez, 5.a JA Extremera, 7.a JL Miñés eta 8.a Maria Vález.

mikoa izatetik “enpresa desertua” izatea pasa izana Bilduri leporatu zion. Extremerak ziurtatu zue-

nez, “Sakanaren irudia garbitu eta enpresak ezartzeko egonkortasuna emanen dugu”.

## Sakanako alkate-gai popularrak

**Irurtzun:** Juan Carlos Martin Fernandez.

**Uharte Arakil:** Maria Valez Amo. 23 urteko iruindarra. Autonomoa, ezkongabea.

**Etxarri Aranatz:** Juan Antonio Extremera. 34 urte. Autonomoa.

**Altsasu:** Carlos Lopez Garcia. 24 urteko madrildarra. Irakaslea. Guadalix de la Sierrako Nuevas Generaciones-eko presidentea.

**Olatzagutia:** Jose Luis Miñés. 61 urte. Buñuelgoa. Seme baten aita. Nekazaria eta abeltzaina.

&gt;&gt; Irurtzun

## EH Bilduk hautagaitza aurkeztu du

Ostiralean udaletxe-ko udal bilkura aretoan aurkeztu zuen EH Bilduk bere udalerako hautagaitza. Berrogeita bost bat irurtzundarren aurrean Aitor Larrazaren zerrenda-buruak legegintzaldirako koalizioak Irurtzunerako dituen lan ildoak azaldu zituen. Euskara, ingurumena, hirigintza, kultura,

immigrazioa, emakumea eta bestelakoak izan ziren aipatu zituenak. Ekitaldiaren ondoren, EH Bilduko parlamenturako zerrendako hautagai Xabi Lasak gaur egungo egoera politikoaren ezagutzea eta etorkizunera begira koalizioak plantatzen dituen erronkak azaldu zituen.



Aitor Larrazaren erdian, EH Bilduko zerrendako hautagaiez babestuta. UTZITAKOIA

## SAKANA

## Langileen aldarrikapenak, kalean

Maiatzaren lehenarekin batera sindikatuak euren aldarrikapenak eta langileen eskubideen aldeko mezuak zabalduko dituzte. Sindikatu bakarra izanen da Sakanan ekitaldia eginen duena. LABek, 12:00etan manifestazioa eginen du Altsasun. Langileok borrokan, *Euskal Herria aldaketa bidean* lelopean borrokan diren langileen protagonismoa eta ekarpena aitortu eta aldarrikatuko du LABek.

ELA sindikatuak bere afiliatuak Bilbora deitu ditu. Prekaritate sozial eta laboralaren kontrako mezua zabalduko du ELAK.

11:45ean Jesusen Bihotza plazan mitina eginen du ELAK eta 12:15ean manifestazioa abiatuko da. UGTk eta CCOOk, atzera ere, elkarrekin antolatuko dute maiatzaren leheneko manifestazioa. *Horrela krisitik ez gara ateratzen* leloa du haien Iruñeko egoitzatik 12:30ean abiatuko den manifestazioa.

CGT, CNT, ESK, Solidari eta STEIL Assindikatuak ere manifestazio deialdi bateratua egin dute Langileen Egunerako. Eguerdian Iruñeko San Lorenzotik abiatuko da *Langileok aldaketaren eragile* leloa duen mobilizazioak.



## Jostunak kalean

Gure Esku Dago dinamikak ahalik eta herritar borondate gehien josi nahi ditu erabakitze eskubidearen alde. Borondate horiek oihalean islatuz irenasteburuan eta haiekin garagarzaroaren 21ean Euskal Herriko bost hiriburuetan hautes-tontzi erraldoi bihurtuko dira.

Dinamikak deituta, Euskal Herriko makina bat herritan aste-buruan Joste Egunak ospatu dira. Sakanan Lakuntzan, Bakaikun, Urdiainen, Altsasun eta Ziordian antolatu ziren ekitaldiak. Elkartu ziren sakandarrek eskuratutako oihaletan erabakitze eskubidearen aldeko aldarriak, mezuak eta marrazkiak egin zituzten. Musika



Makina bat altsasuar elkartu ziren Gure Esku Dago deituta.

eta auzateak lagungarri izan zituzten eginkizun horretan. Gure Esku

Dago-ren materiala eskuratzeko aukera ere baliatuzuten herritarrek.



Kiriku ugatzari jarraipena egiteko irrati transmisorea jarri diote. UTZITAKOA

## Ugatza irrati transmisorearekin

**Haren ohiturak ezagutu eta desagertzeko zorian dagoen espezie hori kontserbatzeko neurriak hartzea da helburua**

Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzari esker Aralar komendilerroan bizi den ugatzetako bat harrapatu eta irrati-ekipo bat jarri diote, motxila antzeko GPS/eguzki igorle bat. Kiriku izena duen ugatzak eta irrati-jarraitzaile horrekin, Nafarroako eta Gipuzkoako basozainek egindako monitorizazio bisualarekin batera, non larreratzen den jakinen da, eta Aralar inguruan ugatzak zer gune erabiltzen duen. Horri esker, espeziearen kontserbazio eta kudeaketak neurri berriak hartu ahal izanen dira Pirinioen mendebaldean.

Igorlea hasi da egunero seinaleak bidaltzen GPSan duen kokapena adieraziz, altuera, hegaldia-aren abiadura, ibilbidea eta abarrek. Datu horiekin, proiektuko arduradunek espero dute pare bat denboralditan larraldi-eremua zein duen zehazki ezagutzea, elikatzeke dituen guneak jakitea, bai eta Aralarren ingurunean ugatzak egindako joan-etorriak ere.

Kiriku 2006. urtean Arbaiun inguruan sortutako arra da, eta lau urte baino gehiago daramatza Aralar inguruan. 9 urte betetzeko zorian dago, heldutasune-

ra iritsi da, eta datozen denboraldietan ugalketari heltzeko moduan izanen da. Hegazti helduen itxurari dagokionez, luma zuria dituzte buruan eta kolore gorri bizia begiaren inguruan.

### Aralar, berreskuratze-lanean erreferentzia

Aralar Pirinioetan mendebaldeko dagoen ugatzaren lurraldea da eta, beraz, espeziea berreskuratze-ko eta Kantauri aldera zabaltzeko erreferentzia da.

Ugatza (*Gypaëtus barbatus* L.) putrearen aldaera bat da, animalien hilotzen hezurak eta kartilagoak jaten ditu. Garai historikoetan penintsulako mendialde guztia hartuzuen. XIX. mendetik aurrera, atzeraldi-prozesu batean sartu zen, gaur arte pixkanaka bizitu zena; hala, egun espeziea Pirinioetara mugatzen da.

Nafarroan atzeraldi-prozesu bat izan du, Pirinioetako gainerako lekuetan gertatukoaren antzera. Pirinioetako ibarretan sakabanatuta dauden ugatz gazteen populazio bat dago eta, aldian behin, mendiko beste eremu batzuetara joaten dira. Bost bikote heldu daude Foru Komunitatean (hamar hegazti, guztira), baina ez dute guztiek urtero habiak egiten. Hazkuntza-eremu hori Pirinioetako populazioaren gune mendebalena da.

Unibertsitatea,  
inguruko gizartearekin  
inplikatzeko ere bada.

**erronkarako #prest**

**Katalin Madariaga,**  
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,  
3. maila.

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**DONOSTIALDEA • MAIATZAK 9**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE • MAIATZAK 16**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI • MAIATZAK 21**  
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BIDASOA • MAIATZAK 9**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**OÑATI • MAIATZAK 16**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO • MAIATZAK 23**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORIATZA • MAIATZAK 30**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA • MAIATZAK 30**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA • MAIATZAK 23**  
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



# Loreak eta landareak

## Garaian garaikoa eta Sakanan

Lore eta landare ugari saltzen dituzte Sakanako lore-dendetan, bakoitzak bere berezitasunekin

## Arbizu, loreen herria

Arbizuko Lore Azokara hurbildu gara, bertan antolatzaileekin egon gara hizketan:

### Noiztik ospatzen da Arbizon udaberriko lore azoka?

Arbizun betidanik balkoiak eta leihoak lorez apaintzeko ohitura eta tradizio handia egon da; hori kontuan hartuta, azoka hau ospatzeko deialdia zabaldu zen orain dela 6 edo 7 urte, behar hori herrian bertan asetzeko asmoz.

### Zenbat postu egoten dira?

Ez da Lore Azoka handia, xumea baizik, 7-8 dendari eta postu egoten dira batez beste. Hasieran



## ARBIZUKO LORE AZOKA



gehiago, nik uste, batez ere lehenbiziko urtean, baina orain kopuru horretan gabilta. Hori bai, urtero zerbait berezia eskaintzen ahalegintzen gara, aurten bonsaiak izan dira, beste urteren batean kaktusak...

### Noiz ospatzen da?

Data finkorik ez daukagu, apirilean edo maiatzaren hasieran, gehienetan Aste Sainduak baldintzatzen du data, baina lorezainek badakite horrela izaten dela. Hori

bai, apirilean izatea nahiago dugu, Arbizuko herritarrak goizter hasten baitira etxeak apaintzen eta prestaketak egiten, sanjuanetarako herria eder-ederra egon dadin, hori baita helburua. Horrelako egunak finko bihurtzeko denbora pixka bat behar izaten da, baina uste dut Arbizon lortu dugula agendan apuntatuta izatea Lore Azoka. Gainera, orain arte zortea izan dugu eguraldiarekin, eta herritarrak elkartzeko beste aukera polit bat da egun hau.

## Olatzagutia, baratzeak eta loreak

Olatziko udaletxera hurbildu gara bertan kultur koordinatzailea den Virginia Alonso Aparicioekin hitz egitera:

### Noiztik ospatzen da Olatz lan-dare azoka?

2007.urtetik, aurtengoa 8.edizioa izanen da. Orduko udaleko zinegotzien ideia izan zen, herrian dagoen zaletatsuna ikusita. Garaiko loreak eta baratzerako produktuak eskaintzea da helburua, bai balkoiak eta leihoak apaintzeko, baita baratzean ekoizten dituen landare eta haziak lortzeko, Olatz in baratza ugari baitago.



**Nolako azoka da, handia, xumea?** 12-14 postu inguru elkartzen dira, beraz ertaina. Gonbitea Sakanako ekoizleei luzatzen zaie, baita Nafarroa eta Eukal-herrikoiei ere. Baratzerako landareak, loreak, mundu honekin erlazionaturik daude hainbat pro-

duktu, aromaterapia, ukenduak, sendabelarrak eskuragai egoten dira. Igande goizean ospatzen da, 12:30etatik 14:00ak arte.

**Noiz izaten da, maiatzean beti, ezta?**

## OLATZAGUTIAKO LANDARE AZOKA



Bai, eguraldiaren arabera antolatzen da, batzuetan berandu samar, bestetan ongi. Iaz, urte batzuetan ondoren, kalean egin ahal izan genuen, aspaldiko urteetan oso eguraldi txarra izan dugu eta. Haurrentzat ekintzaren bat ere antolatzen da, baratzearekin ikus-

tekorik duten tailerrak izaten dira. Tomateak eta letxuak landatu zituzten behin.

Olatziko Udalarentzako ekintza garrantzitsua izaten da, ahalegin handia da, antolakuntzan batez ere, goizetik hasita bait gaude lanean, arratsaldera arte.

## Ariz Goikoetxea eta Patrizia Oiartzun

Altsasu



### Nolakoa da zuen denda?

Gure denda bi sektoretan banatzen dugu, hauetariko bakoitza material jantzitako arduradun batek zuzenduta. Ospakizun, zoriontzetarako eta apainketarako lore-arteak, landa-

reak eta bestelako artikulak batetik. Eta bestetik, baratza, lorategi eta nekazaritzako produktuak. Landareak, lorontziak, fitosanitarioak, haziak, sustratoak, ongariak, pentsuak eta sektoreekin zerikusia duten bestelako gauzak

ere eskaintzen ditugu. Gainera Goiko lorezaintza lorategirako enpresa da. Lorategiak, kimatzeak, ureztatze sistemak eta gehiago lantzen dituen.

### Zein da zuen berezitasuna?

Gure egunoroko dedikazioari esker eta hain barneraturik daukagun sektorean modu mugagabe lanean eta prestakuntza jarraian jardutean lortu dugu eskeintza zabala, eraginkorra eta bezeroarekiko gertutasuna.

### Balkoiak edertzeko proposamenak.

Kalibratxoa, lore txikia eta ugaria ematen duen surfinia barietate bat, oso kolore alai eta bereziekin. Hala eta guztiz ere norberak duen gustu eta dedikazioa kontuan har-

## GOIKO LOREDENDA

**Maiatzak 3, AMAREN EGUNA. IREKITA**

Goiko Loredenda

**Goiko LOREDENDA**

948 564 260  
610 098 595  
Gartzia Ximenez z/g. Altsasu

**Asteleheneetik ostiralera**  
8:30-14:00 / 16:30-20:30  
**Larunbatetan** 8:30-14:00

[www.goikoloredenda.com](http://www.goikoloredenda.com)  
[www.goikolorezaintza.com](http://www.goikolorezaintza.com)

tu behar da.

### Baratzerako?

Tomate, piper eta beste hainbat landaretan barietate bereziak, Euskal

Herrian betidanik egon diren hazietatik ateratakoak. Hauek tamaina handiagoko lorontzietan ekoiztuak eskeintzen ditugu, azkenaldian jendeak asko bilatzen dituenak.

## Jose Ramon Mazkieran

Altsasu



rategirako beharrezko produktuak baita baratzerako landare eta osagarriak.

### Berezitasunen bat?

Adibidez, izurriteak daudenean hemen bertan eskaintzen dugu zerbitzua. Bezeroak izurritearen lagin bat ekartzen digu, aztertu eta produktu egokia ematen saiatzen gara. Gaixotasunaren diagnostiko ahalik eta zehatzena egiten saiatzen gara. Batez ere kontzientzia ekologikogatik egiten dugu lan horrela.

luzera eskaintzen du. Eskaintzen artean ere zurtoin berde eta txuriko Francesitak dauzkagu. Single hibridoa, nazionala baino gehiago hazten da eta lorea francesitarena baino politagoa da. Hiru koloretanko Singleak dauzkagu, violet, orange eta red. Landare nazionalen eskaintza 9 koloretakoa. Honekin batera surfinia eskaintza zabala ere badaukagu.

### Baratzerako zer?

Baratzerako pixka bat itxoitea komeni da nahiz eta askok dagoeneko letxugak, tipulak, borraja edota erremolatxa landatuta dituzten. Maiatzaren 15etik aurrera jende guztia hasten da baratzeri bizia ematen, hiruzpalau egun euririk egin gabe eta orduan lurra irauli eta prest dago landatzeko.

### Balkoiak edertzeko zein lore?

Duela urte batetik ona lore berri bat daukagu. Ez da ez francesita ez nazionala, Single du izena eta bien arteko espezie hibridoa da. Zurtoin berdeko Single espezie honek

### Zein da zuen eskaintza?

Lorategirako nola baratzerako lan egiten dugu. Landareen eskaintza zabala daukagu baita horren zerbitzua ere. Produktu fitosanitarioak dendan ere badaukagu eta lo-

## IZARTE

**izARTE**  
Centro de Jardineria

Isasia industrialdea (negutegia) - Altsasu  
948 467 947 · 637 443 987 · 670 063 093 · [jardineria.izarte@gmail.com](mailto:jardineria.izarte@gmail.com)

Denetarik daukagu, lekak, piper minak, kalabazina, tomateak...garai honetan nahi duzun guztia. Nire aholkua norberak bere baratzeaz izatea. Ongi dago ondokoari,

teknikoari edota internetari erreparatzea baina azken finean norberak ikasten du bere baratzean zer behar duen. Ezagutza esperientziaren bidez lortzen da.

## Cristina eta Marta Diego

Altsasu



rako eskaintza berezi bat daukagu esku artean, ezkontzarako loreak gurean enkargatzen dituztenek gau bat paradore nazional batean pasatzeko aukera izan dezakete, zozketa bidez.

### Berezitasuna?

Gurea landare eta loreekin egindako lanak izaten dira, naturala zein artifiziala. Ezkontzak, barruko dekorazioa, hiladakoen lanak eta landareak orokorrean. Duela bi urte baratzerako landareekin hasi ginen eta produktu fitosanitarioekin. Lore moztuarekin lan egitea gustatzen zaigu urtean zehar dauden ospakizunetan. Lore- Arteko goi ikasketak dauzkagu eta duela gutxi bitxigintza eta loregintzako ikastaroa egin genuen.

### Balkoietarako proposamenak?

Maiatzatik aurrera hasia da komenigarriena eta hemen gehien jartzen dena geranioa da, goraka hazten dena eta bestela zintzililik nahi duenarentzat, geranio huntz bikoitza eta frantzesita daude. Surfinia ere aukeratzen da, petunia bezalakoak da baina zintzilikatzen da. Orain ere campanularen salmenta igotzen ari da. Beste batzuk bacopa, Begonia waterfool eta gero aukeran txikiagoak, petuniak, berbenak edota aromatikoak. Orain askok baratzea balkoian jartzen dute eta nahiko bitxia izaten da hori ikustea baina era berean apaindu eta jan egin dezakezu.

### Eta baratzerako?

Orain baratzerako letxugak, kogolloak, tipula goiztiarra eta valentzia-

## LOREA

**Maiatza 3, Igandea, AMAREN EGUNA**

**ORDUTEGIAK**  
Ostirala 1, 10:00-13:00  
Larunbata 2, 9:00-13:30 eta 17:00-20:00  
Igandea 3, 9:00-13:30

**lore**  
lore eta belardenda  
948 46 74 26 | San Juan 52  
685 72 21 12 | 31800 Altsasu  
[www.floristerialorea.net](http://www.floristerialorea.net)

**KANPOKO 6 LANDARE BERDIN EROSTEAGATIK**  
**%10<sup>eko</sup> DESKONTUA**

rrak aurkituko ditugu. Hazitarako azenarioak eta lekak ere hartu dira. Maiatzaren erdialdetik aurrera denetarik, hasi kalabaza, kalabazina, piper, tomateetatik bakoitzak

nahi duen edozertara. Produktu fitosanitarioetan ekologikoa saltzen ari da. Alga eta zuhaitzen olioekin egindako produktuak dira.

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

# Baratzera jantzita joateko

**Mandoibai elkarteak baratzen inguruko prestakuntza saioak antolatu ditu**

Lurrari buelta eman, makinatu eta baratza lantzen hasi dira azken asteetan makina bat sakandar. Baratzetan dagoeneko letxugak eta bestelakoak landatuak dituzte aurreratuen ibili direnak. Baratzean ibiltzeko garaia iritsi da gurera. Eta baratzean ibiltzeko jantzi egin behar dela uste du Mandoibai elkarteak: prestakuntza saioak eta elikadurari buruzko saioak antolatu ditu.

Larunbatean zazpikote bat sukaldaritza makrobiotikoko ikastaroan parte hartu zuen. Gaur, berriz, Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian dokumentala ikusteko aukera izanen da gaztetxean, 18:00etan. Nekaza-

ritza-industria ereduak ekonomian eta ingurumenean eragindako ondorio kaltegarriak erakustearekin batera, zazpi lurraldeetako esperientzien bidez elikadura burujabetza Euskal Herrian nola ari den gauzatzen azaltzen da. Egungo sistematik kanpoko alternatiba errealak sortzeko eta pertsoneri bizitza duina eskaintzen dien alternatibak sortzeko deia.

## Adituen hitzaldiak

Maiatzaren 21ean Jakoba Errekondok Etxarri Aranatzeko hitzaldia emanen du. Bizi baratzea, garaian garaikoa garaiz (2015, Argia) liburua argitaratu berria besapean duela etorriko da kultur etxera. Kolonbiatik, berriz, Jairo Restrepo Rivera etorriko da maiatzaren 26an. Nekazaritza birsortzailean mun-

duko aditu ezagunetarikoa bat da. Restrepok nekazaritza ekologikoa modu askatzaile batean planteatzen du: burujabetza elikagaiak sortzeko, burujabe bizitza birsortzeko. Aitzinako ezagutzak eta egungoak modu erakargarrian uztartzen ditu.

Mandoibai elkarteak garagarri-lerako nekazaritza birsortzaileari eta hugekulturri buruzko bi ikastaro antolatu ditu. Azken hori Austria aldean erabiltzen duten teknika bat da. Lurra basoetan modu natural batean sortzen da eta prozesu hori oinarritzat hartuta, lur pobrea dagoen tokietan lurra sortzen du hugekultur teknikak.

## Mandoibai elkarteak

Herri baratzen proiektuak aurrera jarraitzen du Etxarri Aranatzko Mandoibai dermioan. Udalak



Mandoibai elkarteak kideetako batzuk baratzeko sarreran. ARTXIBOA

utzitako lursailean baratzeko publikoak kudeatzen ari dira hamar etxarriar eta haiek sortu dute Mandoibai elkarteak. Herri bara-

tzen proiektua etxarriar guztiei zabalik dagoela gogorarazi eta proiektua ezagutzeko handik pasatzeko gonbitea luzatu dute.

&gt;&gt; Altsasu

# Mauthausenetik bizirik atera zen Valeriano Albiztur Mazkianan 45ean



Mauthausengo kontzentrazio eremuan hainbat hilabete egin zituen Valeriano Albiztur Mazkianan. UTZITAKOAK

**Asteartean 70 urte beteko dira Austriako kontzentrazio eremu nazia aske gelditu zela. Hango gas kameretan Victor Restituto Andueza eta Miguel Iriarte Uribe altsasuarrek hil zituzten**

Asteartean kontzentrazio eremua askatu zutela gogoratuko duen ekitaldia antolatu da Mauthausenen. Altsasu Memoria kolektiboa ekital-

dira gonbidatua izan da, baina bere kideek ezin izanen dute han izan. Hala ere, kolektiboak gogora ekarri du kontzentrazio eremu hartan

hiru altsasuar izan zirela eta bakar-rak lortu zuela bizirik ateratzea: Valeriano Albiztur Mazkianan.

Metalurgialaria ogibidez, 1906ko apirilaren 4an jaio zen. Francoren estatu golpearen ondoren errepublikaren alde borrokatuz eta, azkenean, beste 15 altsasuarrekin batera Gurs-eko kontzentrazio eremu frantziarrean bukatu zuen. Handik atera eta Okzitaniako Tolosara joan zen bizitzera. Naziek han harrapatu eta Vernet, Caserne Caffarelli, Bordele eta Mauthausengo kontzentrazio eremuak ezagutu zituen. Azken horretan 1944ko irailaren 16an sartu zuten eta naziek 97.516 zenbakia eman zioten. Han denak zenbakiak besterik ez baitziren.

## Eremuan eta ondoren

Kontzentrazio eremuan durangar batez agutu zuen, eta sukaldetan lan egiteko aukera izan zuen. Ondoren zelaian metalurgialari gisa aritu zen. 80 kilo zituen sartu zutenean eta 38 aske gelditu zenean. Errusiarrak izan ziren askatzen lehenak, gerora amerikarrak iritsi ziren. Askatu ondoren Irungo Jose izeneko batek zeuden euskaldunendako kamioiak jarri eta ospitaleetara eraman zituzten.

Gerra ondoren Okzitaniako Tolosan gelditu zen bizitzen. Altsasun zituen senideekin Baionan elkartzen zen eta inoiz sorterrira ere bueltatu zen. Pertsona alai eta euskalduna zela jaso du Altsasu Memoria, baita bere herrian gelditu ziren bi ahizpei ilea moztu zietela ere. Espainiako estatuak Albiztur bezalakoak ez ditu biktimitzat hartu salatu du kolektiboak.

&gt;&gt; Altsasu



## Cerdanek boto txuria eskatuko du

Azken bi legegintzaldietan UPNko zinegotzi izan den Francisco Javier Cerdanek boto txuria eskatuko dio bere inguruko jendeari. Halaxe jakinarazi dio Diario de Navarrari. Cerdanek jakinarazi duenez, pasa den astelehenean prentsaren bidez jakin zuen zein zen erregionalisten Altsasuko zerrenda burua. Horrek hase-rretu egin zuen, hainbatetan bere burua eskaini dielako alderdiko buruei eta ez diotelako erantzun. Cerdanen iritziz zuzendaritzaren erabakiaren atzean porlandegian erraustearan kontra duen jarrera eta barne hauteskundeetan Catalanen alde agertzea daude.

&gt;&gt; Olatzagutia

## PSNtik eta PPTik UPNra

UPNk estreinakoz Olatzagutiko Udal-lerako hautagaitza aurkeztu du. Erregionalisten zerrendako lehenengo biak duela lau urte beste alderdi bateko zerrendetan aurkeztu ziren. Hala, gauegun PPren zinegotzi bakarra da Oscar Alvarez. Ardua errepikatze bere burua eskaini zuen, baina antza, desadostasunak izan zituzten. Gutxietsia sentitu dela adierazi dio Diario de Navarrari. Alvarezk UPNri Olatzagutian aurkezteko eskaintza egin zion, baita erregionalistekin onartu ere. Zerrendako bigarrena Juan Jose Galartza izan dena, aurreko hauteskundeetan PSNren zerrenda buru izandakoa aurkeztu zena eta 2013ko lastailaren 30ean dimisioa eman zuena.

**Pentsuak**  
Baratzerako landareak eta produktuak  
**Berriain**  
NEKAZAL ETXEA  
Loreak  
Abonoak

696 319 253  
Burundabide 13 · Etxarri Aranatz

MAIATZAK 3  
AMAREN EGUNA  
**Redin**  
Altsasu

## » Ziordia

# Goizeder Casas: «Gu ongi gaude baina Kathmandu hiriko egoera oso zaila da»

**Goizeder Casas eta bere familia Kathmandun bizi dira eta, zorionez, lurrikarak ez die kalterik egin**

Nepaleko lurrikara izugarriak milaka hildako eta zauritutako

utzi ditu. Tartean harrapatu ditu ere hainbat sakandar. Goizeder Casasziordiarra Kathmandun bizi da eta ongi daudela esan digu. Juan Martinezaltsasuarra, berriz,

Pokharanen dago. Berak adierazi digunez, Pokharanen ez zen apenas lurrikara nabaritu, dardar batzuk besterik ez, eta ongi dago. Goizederrekin egon gara.

## gertutik >>

### Goizeder Casas

#### Kathmandun bizi den ziordiarra

**Noiztik bizi zara Kathmandun?** Orain dela urte eta erdi nire senarraren lanarengatik etorri ginen Nepalera, bikiekin haurdun nengoela. Asteartean Luxemburgora goaz bizitzera.

#### Nola bizi zenuten lurrikara?

Berehala konturatu nintzen lurrikara zela. Haurrekin egongelan jolasten geunden, ni eta Lila, haurrekin laguntzen gaituen Nepaleko emakumea. Nik Tilo hartu nuen eta pareta baten kontra jarri nintzen. Lilak Adei hartu zuen eta kalerantz korrika hasi zen. Lila ikusita, berdina egin nuen. Oso zaila izan zen kalera ateratzea, etxe guztia mugitzen zen eta pareta eta gauzeekin kolpatzen ginen. Eskerrak gure etxea handia dela eta kalean ere leku asko eta irekia daukagun. Lorategian eseri ginen eta etxerantz begiratzen genuen. Leihu guztiak ireki ziren eta etxea izugarri mugitzen zen. Beldur izugarria neukan eta Lilak negar egiten zuen, bere familia eta etxean pentsatuz. Gure etxea oso sendoa da eta ez du kalterik izan. Lilaren familia ondo dago, baina etxea galdu dute.

#### Argi indarra, telefonoa, ura... Hori guztia gabe geratu zineten?

Nire telefonoa lehen bi egunetan ezin izan nuen erabili. Nire senarra Istanbulgo bidean zegoen lurrikara gertatu zenean, eta ezin nuen abisatu, ezta gurasoak ere. Eskerrak nire senarrak Lila deitu zuela. Lilaren telefonoa batzue-



tan erabili genezakeen. Argia, ura, interneta, dena bertan beharra geratu zen.

#### Nola zaudete?

Oso ondo gaude, zauririk ez, susto handia gorputzean baina hori da dena. Eta orain lurrikara txikiak sentitzean beldurra bueltatzen da.

#### Oinarritzko zerbitzurik gabe jarraitzen duzue?

Ez, argia eta ura hirugarren egunean bueltatu ziren eta orain interneta ere badaukagu batzuetan.

#### Zein da, oro har, egoera egun?

Kathmanduko iparraldean egoera nahiko lasaia da. Dendak irekita daude eta denetarik aurkitzen dugu. Jende pila dago kalean lo egiten eta euria dela eta, gauak ez dira errazak. Etxeko manta eta izara guztiak banatu ditugu eta gure la-

gunak eta ezagunak laguntzen saiatzen gara. Ni ez naiz hirira jaitsi, baina nire senarra egunero hirira doa, eta hiriko egoera oso ezberdina da. Etxe pila erori dira, milaka pertsonen kalean egiten dute lo dendarik gabe eta euripean, eta ospitaleek ez dute lekua horrenbeste zaurituendako. Pashupathina tenpluan hildakoen ehunka gorputz erretzen dituzte eta giroa, orokorrean, oso tristea da.

#### Zein da zuen asmoa Goizeder? Luxemburgora lehenbailehen etortzea? Nola dago aireportuetako egoera?

Luxemburgora asteartean joango gara aurretik planteatua genuen bezala. Aireportua jendez beteta dago eta bidaiaria txartela gabe sartzea ezinezkoa da. Milaka pertsona saiatzen dira Nepaletik ateratzen, aireportuko egoera oso zaila da.

## guaixe.iragarkilaburrak.com

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**. Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com-en](http://guaixe.iragarkilaburrak.com-en).

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**Pisua salgai Etxarri Aranatzan.** 83m erabilgarriak, oso eguzkitsua eta bista ederrekin, berogailua, berritua... 70.000 €. Tel 654 23 41 02

#### ERRENTAN EMAN

**Pisua alokagai Lakuntzan.** Gela bakarrek apartamentua, erdigunean. Altzariak eta bizitzeko beharrezkoak diren elementu guztiak jantzi-ta. 300 € hilabeteko errenta. Interesatuak 678 83 03 71 telefonora deitu.

### Opatutakoak/galdutakoak

#### GALDUTAKOAK

**Belarritakoak.** Apirilaren 12an, igandean, Etxarri belarritakoa galdu nuen, urre txuria, obalua, txispa txiki batekin. Deitu 669 58 54 69.

### LEHIAKETA

**Erromantzatuen koloreak.** Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa [www.restauranteromanzado.com](http://www.restauranteromanzado.com)

**Irurtzango festen kartela.** Maiatzaren 29ra arte aurkeztu daitezke lanak. Haur maila (14 urte arte) eta helduen maila daude. Informazio guztia: [www.irurtzun.es](http://www.irurtzun.es)

**Pedro de Atarrabia.** Kontakizun laburren lehiaketa, euskaraz eta gaztelez. Informazioa Atarrabiko udalean: [www.villava.es](http://www.villava.es)

### Oharrek

**Odol-emaileak.** Maiatzaren 6an eta 13an, Etxarri Aranatzan, arratsaldean eta 21ean Olaztin, arratsaldean.

**Bertso-udalekuak.** Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

**Axio.** Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean edo [www.karena.eu](http://www.karena.eu) plataformaren bidez egin dezake. Informazio gehiago [www.axioflores.com](http://www.axioflores.com)

**Iruñeko euskarazko telebistaren alde.** Xalao telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-iruneriari](http://www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-iruneriari) edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70

### JAIOTZAK

- **Laia Rodriguez Caballé,** apirilaren 14an Uharteko Arakilen.
- **Mariam Zehhi Abbadi,** apirilaren 21ean Altsasun.
- **Izei Zubiria Sanchez,** apirilaren 21ean Altsasun.
- **Manex Etxetxikia Leitza,** apirilaren 25ean Arbizun.

### HERIOTZAK

- **Maria Lezea Bengoetxea,** apirilaren 26an Olaztin.
- **Vicente Nevado Lozano,** apirilaren 27an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

### Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.

Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

**Mintzakide proiektua.** Egunkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-egin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpentak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrantea zabaltu du.** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpentak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinikari) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikariko.** Bazkideak izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**TxikiTxo**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 · ALTSASU

**nc nerea cenoz**  
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

[info@nereacnoz.com](mailto:info@nereacnoz.com)  
[nereacnoz.com](http://nereacnoz.com)

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza  
(Bostekoa masaje zentroan)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

**Igoa**  
arraiendegia

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Aranz



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)

**Jesus Amado Larraza Lizarraga**  
(Esperanza Lakunzaren alarguna)  
2015eko apirilaren 25ean hil zen, 97 urte zeuzkala.  
Familiak eskerrak ematen ditu jasotako babes eta berotasunagatik.  
**Etxekoak**  
Etxarri Aranatz



**Jesus Amado Larraza Lizarraga**  
(Iñaki Mundiñano, Bierrik Fundazioko patronatuko kidearen aittuna)  
Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.  
**bierrik**  
fundazioa  
Bierrik Fundazioko langileak

**Oroigarriak**



**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA  
948 564 275

**Alazne Mercero Peñagarikano**  
(Iñigo Aritza ikastolako sorrerako andereñoa)  
Ikastolaren sorrerarekin bat egin zenuen, Altsasun euskarari atea zabalduz. Zure irribarre eta alaitasunak erraztu digu bidea.  
**Iñigo Aritza ikastolako guraso, ikasle eta langileak**




**M<sup>a</sup> del Mar Albarrazin Razkin**  
**Antonio Goikoetxea Fernandez**  
**M<sup>a</sup> Angeles Ayestaran Goñi**  
**M<sup>a</sup> Angeles Sanz Aizpun**  
**Ismael Igoa Ezkutari**  
**Antonio Jimenez Mendiola**  
**Fidel Salinas Ferrer**  
Parrandan ere gogoan zaituztegu.  
**1960ko kintoak**


**Adur Mariñelarena Galarza**  
X. urteurrena  
Zure falta bezain urrun dugu zure presentziaren gertutasuna.  
**Zure familiye**  
Etxarri Aranatz



**Juli Berastegi Arbizu**  
IV. urteurrena  
Zure irrifarra, zure alaitasuna, gure artean bizirik.  
**Zure senarra, seme-alabak eta ilobak**  
Lizarraga-Ergoienan, 2015eko apirilaren 28an.




**Adur Mariñelarena Galarza**  
10 urte pasa diren arren zure lagunek gogoan zaitugu.  
**Etxarri Aranatzen**



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu  
  
**Bidali mezua**  
**zorion@guaixe.net-era**  
**edo hots egin**  
**948 564 275 telefonora**



GRUPO  
Funeraria  
**VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980**



## Mendi lasterketak

## Jose Luis Beraza hamargarrena Izarraitzen

Sakandarrak XI. Izarraitz mendi lasterketan (21 km):

1.	Aitor Osa	1:50:48
10.	Jose Luis Beraza	2:05:19
57.	Juanjo Armendariz	2:24:59
87.	David Oroz	2:35:48
168.	Julen Arratibel	2:56:11

Sakandarrak XI. Aloñako igoeran (22,3 km)

## Gizonezkoak

1.	Walter Becerra	2:09:11
31.	Iraitz Senar	2:29:03
32.	Fidel Jimenez	2:29:42
65.	Patxi Rubio	2:43:35
66.	Ipi Lizarraga	2:43:38
202.	Alberto Arrizabalaga	3:13:46

## EMAKUMEAK

1.	Alizia Olazabal	2:43:48
15.	Aran Larrañaga	3:33:33

## Sakandarrek maila polita eman dute Izarraitzen eta Aloñan

Asteburuan gure korrikalariak lan ederra burutu dute Azpeitian eta Oñatin. Larunbatean XI. Izarraitz mendi lasterketa jokatu zen Azpeitian (21 km). Helmugara iritsi ziren 212 korrikalarien artean Aitor Osak hegan egin zuen eta proba irabazi zuen (1:50:48). Sakandarren artean Jose Luis Beraza



uhartearra izan zen azkarrena, 10.a sailkapenean (2:05:19).

Bestalde, igandean Oñatik XI. Aloñako Igoera hartu zuen (22,3 km). 268 korrikalari iritsi ziren helmugara, Walter Becerra (2:09:11) eta Alizia Olazabal (2:43:48) buru zirela. Sakandarrei dagokienez, Iraitz Senar lakuntzarra izan zen azkarrena (2:29:03), helmugan 31.a. Aran Larrañaga emazkumezkoetan 15.a iritsi zen helmugara (3:33:33).

## Beregaña 18.a San Marcosen

Igandean 19. San Marcos Igoera jokatu zen Errenterian. Iñaki Martiarenak irabazi zuen proba (54:07). Jose Jabier Beregaña 18.a iritsi zen helmugara (1:05:23).

## Gimnasia erritmikoa

## Iskizakoak dominekin etxera

Nafar Kirol Jolasen bigarren faseetik kontentu itzuli dira

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeak martxoaren 14an Nafar Kirol Jolasen lehendabiziko fasean parte hartu zuen. Apirilaren 19an, berriz, Nafar Kirol Jolasen 2. fasea izan zuten jokoan Mendillorri. Talde sakandarretik azaldu digutenez, giro bikaina izan zen txapelketan eta bikain pasatu zuten guztiek. Iskiza Sakana taldeak 13 gimnasta aritu ziren B mailan eta 3 A mailan, eta sailkapen orokorra kontuan hartuta, 5 domina ekarri zituzten.

## Lortutakoa

Nafar Kirol Jolasen 2 faseak kontuan hartuta, sailkapen orokorrean, B mailako aurrebenjaminetan, esku libreekin, Iskiza Sakanako Anne Iturrioz hirugarrena izan zen (15,450). Eider Murugarren 7.a sailkatuzen (13,217) eta Uxue Zubelzu 9.a (11,750). B mailako benjaminetan, esku libreekin, Naroa Diaz bigarrena sailkatu zen (14,183). B mailako kimuetan, pilotarekin, Maitane Agirre bigarrena izan zen



B mailan lehiatu ziren Iskiza-Sakanako gimnastak. Behean, A mailakoak.

(15,933). Nerea Adrian 5.a izan zen (14,450), Uxune Campos 9.a (12,783), Maider Maiz 10.a (12,667), Naia Perez 14.a (9,917) eta Irune Etxaniz 16.a (9,833). B mailako haurren kategorian, uztaiarekin, Irune Arguelles 3.a (15,650) eta Emma Garzandía 4.a (14,717). Juniorren mailan mazoekin lan bikaina egin zuen Miriam Martinek, bigarrena izan baitzen (15,667).

A mailari dagokienez, A mailako benjaminetan, sokarekin, Amaia Marin hirugarrena sailkatu zen (13,517). A mailako kimuetan, pilotarekin, Oihane Sayas 5.a sailkatu zen (14,333) eta Milagros



Arce 6.a (13,450).

Larunbatean Iskiza Sakanako beste hitzordu garrantzitsua dute. Nafar Kirol Jolasen barruan taldeka lehiatuko dira, Mendillorri. Hain zuzen ere, kimuen eta junior mailakoen lehen fasea egonen da jokoan.



# Kaluxa

TABERNA • JATETXEA

Naiara Navarro

948 469 291 • URDIAIN



Etxeko sukaldaritza  
Plater oso landuak  
Astero menuan aldaketak

Bi lagun artean konpartitzeko aukera

Hamaiketakoak

Bokatak

Plater konbinatuak

MENUAK

**Astez:** 10 €

**Asteburuko menua:** 20 €.

3 sarrera aukeran, 3 bigarren aukeran, postrea, kafea eta edaria barne.

**Bereziak:** bataioak, jaunartzeak...

Zuk prezioa eman diezaguzu eta guk hiru menu ezberdin proposatuko dizkizugu.

*Nahi duzuna ordain ezazu!*



## Areto futbola

# Koxka taberna, orain Europa!

**Altsasuko futbol taldeak XIX. Europako klubaren arteko UEFS Cup txapelketan parte hartuko du, maiatzaren 4tik 9ra, Lloret de Marren**

Koxka taberna areto futbol talde xumea da, bertako eta gertuko txapelketetan ongi pasatzeko sortua. Orain, berriz, amateur mailako Europako txapelketa garrantzitsuean lehiatuko dira sakandarrak, XIX. Europako klubaren arteko UEFS Cup txapelketan. Maiatzaren 4tik 9ra jokatuko da txapelketa, Lloret de Marren.

## Hastapenak

Koxka tabernak Sakanako areto futbol txapelketa irabazi zuen 2012an. Koxkako Migel Barrero eta Jose Ramon Ramirez entrenatzaileek kontatzen digutenez, Areto Futboleko Klubaren Arteko Estatuko Txapelketa antolatzen duan fcs.es elkarteak (Asociacion Nacional de Futbol Sala). “Bertan areto futboleko talde amateurak lehiatzen dira. Lehenik probintziak jokatzen da eta gero onenak Espainiako txapelketa jokatzen dute. 2012an guk parte hartzea erabaki genuen. Araban parte hartu genuen, bertan ezagunak ditugulako. Miranda de Ebron jokatu genuen aurrekoa irabazi genuen eta Estatuko Txapelketan aritzeko txartela lortu genuen. 2012an Espainiako Txapelketan lehenengo errondan galdugenuen, 2013an bukaerako fasera iritsi ginen eta 2014an, Guadalajaran, Klubaren Arteko Estatuko Txapelketa irabazi genuen eta Amateurren Europako Txapelketan jokatzeke txartela lortu genuen. Eta orain Europako jokatuko dugu” diote bi entrenatzaileek. Txapelketan parte hartzeko beharrezkoa zuten aurrekontua biltzea lortu dute eta eskertuta daude.

## 12 talde koparen bila

XIX. Europako klubaren arteko UES Cup maiatzaren 4tik 9ra jokatuko



**Atezainak:** Jose Retegi eta Ivan Gorriz. **Jokalariak:** David Mori, David Teran, David Garcia, Jonathan Higuero, Arkaitz Gasko, Jonathan Medina, Iñaki Morillas, Jorge Mayordomo, Patxi Beraza, Javi Azkoiti eta Otman Ogdí. **Entrenatzaileak:** Migel Barrero eta Jose Ramon Ramirez. **Delegatuak:** Kiko Tejeiro eta Mixel Agirre.

da, Lloret de Marren. Guztira 12 talde lehiatuko dira, 4 multzotan banatuta. A multzoan Errusiako Volna, Belgikako Los Calimeros eta Katalunyak EFS Ripoll daude –Katalunyak selekzio propioa du–, B multzoan Errusiako Podvodnik, Frantziako Romorantin eta Kataluniako Naturopathic. C multzoan Errusiako Russland, Italiako Futsal Fics eta Frantziako C2C Vauvert. D multzoan, azkenik, Txekiar Errepublikako SK Sico SC Jilemnice, Armeniako DVIN eta Koxka Taberna. Lehen fasean, multzo bakoitzeko guztiak elkarren kontra ariko dira eta 2 onenak pasako dira aurrera. Ondoren final laurdenak, finalerdia eta final handia jokatuko dira, azken hau larunbatean.

## Armeniarrek eta txekiarrek, lehen arerioak

“Gu ongi gaude, sasoiaren. Talde orkatua dugu. Baina gu afizionatuak gara, areto futbolaz gozatzerak eta

ongi pasatzera biltzengaren taldea, besterik gabe, gutxi gorabehera 33 urteko batezbestekoa duguna. Jokalari gazteenak 29 urte ditu eta helduenak 40. Baina badakigu Errusiatik, Txekiatik eta ekialdetik datozen taldeak beste maila batean daudela. Han areto futbola izugarri bizitzen dute, eta ziurrenik etorriko direnak gazteak izango dira, erdi profesionalak, sekulako mailarekin. Hala ere, gu sasoiaren gaude, areto futbolearen esperientziak garrantzia handia du, eta gauzak ahalik eta hobekien egitera aterako gara” adierazi dute Ramirezek eta Barrerok.

Astelehenean bere bi arerioek, Armeniako eta Txekiar Errepublikako taldeek, elkarren kontra jokatuko dute eta partida hori ikustera joango dira sakandarrak, bi taldeen erreferentzia hartzeko. Asteazkenean Koxkak Armeniako DVIN izango du arerio, 12:00etan, eta, ostegunean, 15:00etan, SK Sico SC Jilemnice tal-

[www.uefs.eu/copa-uefs-clubs-masculinos-2015\\_spanish.htm](http://www.uefs.eu/copa-uefs-clubs-masculinos-2015_spanish.htm)

Txapelketari buruzko informazio guztia.

de txekiarra. “Badakigu konplikatu izango dela, baina final laurdenetara gure multzoko 3 taldetik 2 pasako dira eta aukerak, izan, badiugu. Ilusioz gainezka gaude, guretako sari bat da hemen parte hartzea eta, printzipioz, disfrutatzera aterako gara. Hurrengo fasean pasatzea konplikatu izango da, baina, aukerak badaude” diote Koxkako entrenatzaileek.

## Festa hartzeko zailtasunak

Koxka tabernako jokalariek gehienek lan egiten dute eta konplikatu egin zaie txapelketan parte hartzeko festa egunak hartzea. “Eromena izan da egunak hartu ahal izatea. Niri orain egun horiek ezingo ditudala hartu esan didate. Pena handiarekin baino ezingo dut joan” azaldu digu Ramirezek.

# Magnak seigarrena despeditu du liga

**Imanol Arregiren mutilek 52 puntu lortu dituzte, orain arteko puntu gehienak. Play-offetan El Pozo izango dute aurkari**

Denboraldi bikaina burutu du Magna Nafarroa Xotak. Ostiralean ligako azken jardunaldia jokatzen, eta Jaen taldea hartu zuen talde berdeak. Partida bikainean, 6 eta 3 irabazi zuten Imanol Arregiren mutilek. Javi Esevenri kapitain beteranoak 4 gol sartu zituen. Javi Saldise eta Carlitos izan ziren beste bi golegileak.

## Arreti: “Denboraldi ikaragarria egin dugu

Imanol Arregi entrenatzailea kontentua zegoen. “Denboraldi ikaragarria izan da, marko artean jar-

tzekoa. Aurrekontu gutxiagorekin eta plantilla oso gaztearekin lortu dugu hori. Seigarrenak sailkatu gara, 52 punturekin, orain arte genuen 49 puntuko errekorra gaituz. Jokalariak zoriondu nahi ditut lan ikusgarria egin dutelako” nabarmendu zuen Arregik. Esevenri goraiatu zuen. “Erretiratzen denean monumentu bat jarri beharko diogu” adierazi zuen.

## Play-offetan El Pozo aurkari

Inter Movistarrek irabazi du liga (79 puntu), Bartzelona (74 puntu), El Pozo (73 puntu), Jaen (54 puntu), Palma Futsal (53 puntu), Magna Nafarroa (52 puntu), Aspil Vidal



Esevenri 4 gol sartu zizkion Jaeni.

(51 puntu) eta Peñiscola (47 puntu) taldeen aurretik. Lehen 8 postuetan sailkatutako talde hauek jokatuko dute ligako titulua erabakitzeko maiatzaren 8an abiatuko diren play-offak.

Lehenik eta behin final laurdenak jokatuko dira, gero finalerdia eta, azkenean, final handia. Final laurdenetan 3 partidako onenak egingo du aurrera. Magna Nafarroa El Pozo izango du aurkari, Peñiscolak Inter Movistar, palma Jaen eta Aspil Vidalek Bartzelona. “Fase honetan edozein aurkari da konplikatu, El Pozo tartean” nabarmendu du Imanol Arregik. Ea play-offetan sorpresa ematen duten.

## Futbola

## PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

30. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 0 - BERIAIN 3**  
Preferenteko azken jardunaldian Berain finago ibili zen eta 0-3 gailendu zen. Nahiz eta Lagun Artea hurrengo denboraldirako 3. eta preferente mailen artean sortuko den lehen maila autonomiko kategorian berrirako ez sailkatu, zorionez preferente mailari eustea lortu du eta hurrengo urtean Etxarriekin jokatuko du kategorian honetan.



Sailkapena >>

1. Mendi ..... 65 p  
14. Lagun Artea ..... 27 p

## ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

30. JARDUNALDIA

**ETXARRI ARANATZ 11 - MUTILBERA 0**  
**MENDILLORRI 2 - ALTSASU 2**  
Unai, Asier (2), Pablo (2), Xabat (3), Mikel (2) eta Alaini esker 11-0 irabazi zion Etxarri Mutilberari. Bestalde, lehia oso borrokatu eta paretsuan Joelek eta Darlingek Altsasu bitan aurreratu zuten, baina Mendillorrik berdintzea lortu zuen. Gaur Altsasu eta Etxarriren arteko derbia jokatuko da.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz ..... 71 p  
9. Altsasu ..... 42 p

Asteburuko jardunaldia

**ALTSASU - ETXARRI ARANATZ**  
(Ostiralean, 16:45ean, Dantzalekun)

## ELOMENDIKO TXAPELKETA

Txapelketa despeditzeko atzeratutako bi jardunaldi jokatzea falta da. Hala ere, Egiarreta dugu txapelduna. Zorionak!



2. FASEKO 18. JARDUNALDIA. A MULTZOIA

## EGIARRETA 4 - BERIAIN 2

Sailkapena >>

1. Egiarreta ..... 46 p

Asteburuko jardunaldia

## EGIARRETA - BIDEZARRA

2. FASEKO 18. JARDUNALDIA. B MULTZOIA

## ENERIZ 1 - ZALDUA 9

Sailkapena >>

1. Zaldua ..... 35 p

Asteburuko jardunaldia

## MALDARTEA - ZALDUA

## Futbola

## Kimuen Futbol 8 Topaketak

Igandean, Mank-ek antolatutako Kimuen Futbol Txapelketako 16. jardunaldia jokatuko da Altsasun.

## 16. jardunaldia

### Igandean, Dantzalekun

**10:30ean:** Lagun Artea - Urdiain

**11:30ean:** Sayas - Dantzalekun

**11:30ean:** Arbizu - Kaixo

**12:30ean:** Txartel - Sutegi

**12:30ean:** Mediolanum - Tipi Tapa

## Ipar martxa



## Ipar Martxa edo Nordic Walkinga ikasi nahi duzu?

Maiatzaren 3an, 10:00etatik 13:00etara Arbizuko ekokanpinean ikastaroa antolatuta dute

Modan dago nordic walking edo ipar martxa. Finlandiansortuzen kirol hau, 30. hamarkadan. Iraupen eskiatzailak elurra ez zegoenean entrenatzeko hasi ziren bastoiak elurrik gabe erabiltzen, maila fisikoa mantentzeko. Ongi zihoakiela konturatu ziren eta berehala zabaldu zen kirola.

Ipar martxa, hankei ez ezik, besoei eta soinarenean goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da. Jarduera hau praktikatzeko bi makila behar dira, bereziak. Ez dira ohiko mendiko bastoiak, heldulekuan berezitasuna dute: lokarri bat eraman behar dute.

Igandean, maiatzaren 3an, ipar martxari buruzko oinarrizko 3 orduko ikastaroa eskainiko dute Arbizuko ekokanpinean Manu Odriozolak eta Joseba Errastik. Hitzordua 10:00etan jarri dute, kanpineko harreran. "Kirolaren teknika azalduko dugu eta teknika horretara iristeko ariketak egingo ditugu eta gero praktikara pasakogara. Guk eramango ditugu bastoiak. Alfa teknika erakutsiko dugu, osasunari begira Alemanian fisiologian kirolaren zientzilariek garatu duten teknika bat" adierazi dute.

## IZENA EMATEKO

Ondoko telefonoetara hots egin: 675 401 520 (Manu) edo 665 547 755 (Joseba). Prezioa 30 eurokoa da. 10 pertsonako kopuru mugatua dago. Dena den, hilean behin ikastaroa emateko asmoa dute.

## Duatloia

## Sakanako duatleta gazteak, puntan

X. San Juan Duatloian Villalobos eta Imaz garaile eta Iñigo Maiza bigarrena

Asteburuan jokatu zen, Iruñean, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen X. San Juan Duatloia. Sakana Triatloi Taldeko duatletek sekulako maila eman zuten. Aurrebenjamin mailan Ekain Imaz izan zen garaile eta Alain Razkin bigarrena. Benjaminetan, berriz, hirugarrena sailkatu zen Egoi Lakuntza eta kimuen mailan Nahia Imaz zortzigarrena iritsi zen helmugara. Haurren mailan puntan izan genituen sakandarrek. Gizonezkoetan Unai Villalobosek irabazi zuen proba, eta emakumezkoetan Leire Maizak maila bikaina eman zuen atzeraere. Hirugarrena sailkatu zen etxarriarra. Bukatzeko, kadeteetan Iñigo Maiza bigarrena sailkatu zen eta Fermín Azkargorta hirugarrena.

## Pilota

## Zubieta: «Jendeak ematen dizun berotasuna betiko geratzen da»

Aitor Zubietak eta Pablo Berasaluzek Binakako finala galdu zuten igandean, 22 eta 7, Bengoetxearen eta Untoriaren kontra. Etxarriko atzelariarekin egon gara finalaz aritzeko

## Egun batzuk pasa dira finalerik.

Finala hor dago, ez genuen irabazteko zorterik izan. Bengoetxeak eta Untoriak partida beteagoa egin zuten, guri nola min egin jakin zuten eta beraiekin izan da txapela. Baina hori alde batera utzita, kontentua nago. Uste dut txapelketa ona egin dugula Pablok eta biok, finalera iritsi gara eta alde horretatik oso pozik.

## Nola bizi zenuen eguna? Pablori urduri sumatzen zitzaion...

Ni partidaren barruan nengoen. Ez nintzen urduri sentitu ez aurretik ez partidan. Saiatu nintzen gurea egiten baina beraiekin joko hobea izan zen. Oinatzek oso ongi jakin izan zuen partida bere eremura eramaten, aurrean sartzen eta bera izan zen garaile. Pablo partida hasieran urduri sentitu zen eta partidan barna igual pixka bat ere.

## Zale gehienak alde, pankartak, frontoia lehertze sekulako giroarekin... kantxara ateratzean txiki-txikia sentituko da bat. Edo handitu egiten du horrek?

Niri behintzat handitu egiten nau. Frontoia hala ikustea... oso ongi sentitu nintzen, oso pozik eta oso harro jendearen erantzunaz. Kristoren festa antolatuta zuten. Pentsatzen dut egun ona pasa zutela. Pena izan zen zaleei garaipena ezin ematea, baina jendearekin oso pozik nago. Erakutsi ninduten asko jarraitu nautela eta horrek izugarri betetzen nau. Txapelak gauza bat dira, baina jendeak ematen dizun berotasuna beste bat, eta hori betiko geratzen da. Gainera, partida galduta Etxarri egin zidaten harrera, karpan zegoen



giro bikaina -afarian ehundik pasa egon ginen- eta geroko festan egon zen giroa, zer gehiago eskatu? Horrelako harrerarekin galdu egin nuela kasi-kasi ez zen igartzen.

## Prensa aretoan esan zenuen moduan, "hau ez da funeral bat". Nahiz eta finala galdu, jarrera bikaina izan zenuen.

Horrelako egun handi batean jokatzeko aukera izan dut berriz ere. Partidan ahal den guztia egin nuen baina besteak gehiago izan ziren. Horrela gertatu zen eta horregatik ez dut eguna pikutara botako. Hor zegoen giroa eta guztia-gatik jendea iristeko zor nizekion, gutxienez jarrera ona eskaini. Finalera iristeko badu berea; beste bikote guztiak bidean geratu dira eta, ea finala ez irabazteagatik hori poz bat izan beharrean atsekabe bihurtzen dugun. Finala ez genuen irabazi, baina finalera iritsi ginen, eta lasai geratu nintzen, ahal nuen guztia egiten saiatu nintzelako. Eta

behin galduta, jakina, beraiei zoriondu. Beraiek merezi izan zuten txapela.

## Errekuatu gabe buruz burukoan murgilduko zara, final zortzirenetan.

Bai. Enpresak, Aspek, finalerdietan aipatu zidan jokatzeko aukera, eta eskutatik ongi banago ez zait inporta jokatzeko. Egun atzelariendako oso eremu zaila da buruz buruko, baina beno, ondo egonez gero, enpresak eskatzen badit ez dut inolako arazorik jokatzeko. Aste bat gehiago eman nahi izan didate eskuengatik, finalera justu iritsi nintzelako. Ea partida on bat egiteko gauza naizen eta galdu edo irabazi gustura geratu. Gertatu izan zait nirea eman gabe etxera joatea. Atzelariak igual denbora gehiago beharko genuke prestatzeko, buruz buruko joko horretara egiteko, baina pilota horrela da eta jokoa zauden bitartean eta arazo fisikorik ez baduzu ondo hartzen da dena, datorren bezala.

## Ezkurdia eta Zubieta buruz burukoan

Arbizuarrak Arretxe II.a izango du aurkari igandean Oionen eta Zubieta final zortzirenetan sartuko da lehian

Binakako txapelketako finala jokatu berritan eta oraindik atsedean ere hartu gabe, gaur hasiko da Buruz Buruko. 16 pilotarik jokatu dute pilotako txapelketa erregean, tartean bi sakandarrek: Joseba Ezkurdia arbizuarrak eta Binakako txapel dunorde Aitor Zubieta etxarriarrak.

## Ezkurdia Arretxeren kontra, igandean

Albisuk Rezusta izango du aurkari gaur Zumarragan, eta irabazleak Xala izanen du zain final zortzirenetan. Larunbatean, Naia-

pelketan ariko.

ran, Untoriak eta Altuna III.ak jokatu dute, eta Aitor Zubieta etxarriarra izanen dute zain hurrengo fasean. Jaunarena eta Artolak igandean jokatu dute Legazpin eta irabazleak Beroizen kontra jokatu beharko du. Bukatzeko, Iker Arretxeren kontra ariko da Ezkurdia igandean Oionen, 17:00etan. Irabazlea Oinatz Bengoetxearen kontra ariko da final zortzirenetan. Final laurdenetan Irujo, Olaizola II.a, Urrutikoetxea eta Retegi Bi sartuko dira lehian.

Aspek Zubieta deitu behar izan du, Barriolaren eta Zabaletaren azken orduko bajak tarteko. Jose Javier Zabaletak orkatiletan arazoak ditu eta horregatik ez da txapela

## Polemika

Aimar Olaizola izango da zerrendaburuetako bat. Berak hartuko du Mikel Idoatek eskuko lesioaren erruz utziriko final-laurdenetako tokia. Iazko sailkapenari kasu egingez, final-laurdenetan kanporatutako pilotari batek bete behar zuen toki hori. Olaizola II.a hala izan zen, baina bazeuden bera baino emaitza hobea lorturikoak. Iazko emaitza errespetatu izan balute, Xalاک beharko zukeen zerrendaburu. Hala ere, enpresek Olaizola aukeratu dute. Nonbait, aurtun aldaketa egin dute arautegian.



## Olaztiko San Migel XLIV. Pilota Txapelketa abian

Asteburuan 8 partida jokatu dira guztira

Asteburu honetan emango zaio hasiera Olaztiko San Migel elkarte-antolatutako XLIV. Pilota Txapelketari. Asteburuo pilota partidez gozatzeko aukera izanen da Olaztin. Finalak festetan jokatu dira.

## Asteburuko partidak

## Ostiralean, 20:00etan

3. maila: Lauzirika-Irisarri / Alustiza-Gonzalez

2. maila: Ansotegi-Joao / Borrega-Eneriz

## 22 urtez azpikoak:

Urdanpileta-Elizegi / Sevilla-Candela

Aramendia-Izkue / Aburuza-Mujika

## Larunbatean, 17:00etan

## 3. maila:

JM Peral-A Peral / Iñaki-Ibon Asier-Victor / Pleito-Ondatz

## 1. maila:

Zelaia-Alustiza / Joseba-Unai Etxague-Lopetegi / Loban-Arbizu



## Irurtzun Pilota Txapelketa aurrera

23. Irurtzungo Pilota Txapelketan senior mailako 24 bikote ari dira lehian. Igandean Lekunberrin jokatu dira txapelketako partidak.

## Asteburuko jardunaldia:

Espinal-Martija 5 / Arrieta-Lizeaga 22 Vidan-Etxamendi 16 / Otxandorena-Irañeta 22

Mendinueta-Legarreta 15 / Bakaikoa-Lasa 22

Ezkurdia-Tabar 22 / Lopez-Larraia 9 Isasmendi-Labaka 12 / Baez-Peñas 22

Ongai-Landiribar 22 / Azpiroz-Ugalde 9

## Asteburuko partidak

Igandean, 17:00etan, Lekunberrin

Labaka-Arratibel / Peru Labaka-Erostarbe

Otxandorena-Irañeta / Armen-dariz-Linzoain

## Atletismoa

## Sakandar asko Leitzan: Raul Audikana 15.a

Leitzak 37. Herri Krosa hartu zuen igandean (10km). Aimar Bozianegailendu zen 105 korrikalarien artean. Raul Audikana olaztiarra 15.a sartu zen (36:18), Aritz Pellejero 17.a (36:42), Iban Gonzalez 20.a (36:57), Martin Somocurcio 41.a (41:35), Santi Agirre 53.a (42:19), Ion Zubiria 54.a (42:21), Luis Flores 56.a (42:31) eta Luis Migel Galindo 76.a (47:17).

## Automobilismoa

Larunbatean  
5. Irurtzungo Slaloma

16:00etan hasiko da, Akaborro industrialdean

Larrazpik eta Motoclub Trinidad taldeak antolatuta, larunbatean 5. Irurtzungo Slaloma jokatu da Akaborro industrialdean, 16:00etan hasita. Antolatzaileek, piboteak erabiliz, ibilbide konplikatuak markatu dituzte eta autoek, banaka-banaka, ibilbide hori osatu behar dute. Automobilismo modalitate honetan abiadura baino gehiago, pilotuen maniobra ikusgarriak eta gidatzeko trebezia baloratzen da. Aurrekurtean 20 pilotu lehiatu ziren. Igarki Nuinek sari berezia jaso zuen zirkuitua modu ikusgarrienean egiteagatik, baina sari nagusia Carlos Mariñelarenarendako izan zen, zirkuitua azkarrenen amaitu zuelako.

## Herri kirolak

Ikastetxe arteko  
XI. Herri Kirol  
Topaketa Irurtzunen

Asteazkenean, 10:00etan, Irurtzungo kiroldegian

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, aurten Irurtzunen jokatu da ikastetxe arteko XI. Herri Kirol Topaketa. Kañameres anaiek trontza eta aizkora erakustaldia egingo dute, eta ondoren Sakanako ikastetxe guztietako 6. mailako ikasleek hartuko dute parte herri kirol proba konbinatueta-tingak, zaku lasterketa, koxkolak, giza-plaza eta sokatira-, nahasita. Guztira 168 partaide izango dira, eta 17 irakasle.

## Sokatira

Nafarroako 4x4  
Sokatira Txapelketa

Kadete mailako bigarren jardunaldia jokatu zen Larraintzarren

Larraintzarrek Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako 2. Jardunaldia hartu zuen larunbatean. Kadeteen mailan (280 kilo), atzera ere Ultzama A taldea izan zen finena (7 puntu), gertu Etxarri Aranazko Andra Mari zuela (6 puntu). Berriozar A izan zen hirugarrena (5 puntu), Berriozar B laugarrena (4 puntu), Araxes bosgarrena (3 puntu), Iñigo Aritzaseigarrena (2 puntu) eta Ultzama B zazpigarrena (puntu bat). Hirugarren jardunaldia Lekunberrin jokatu da, maiatzaren 9an.

## Eskalada

Eskaladan murgiltzeko  
ikastaroa Sakanan

Mank-ek antolatuta, Ion Gurutz Lazkozzen begiradapean haitzean eskalatzeko oinarritzko ezagupenak jasoko dituzte izena ematen dutenek

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak haitz-escalada ikastaroa antolatu du maiatzaren 15ean, 16an eta 17an, 8 urtetik gorakoendako. Hastapeneko ikastaroa izanen da, eta helburua haitzean eskalatzeko oinarritzko ezagupen eta teknikak lortzea da. Ion Gurutz Lazkoz Martinez eskalatzailer eta ekipatzaile arbizuarra izango da monitorea.

Mankomunitateak aurretik eskalada ikastaroak antolatu ditu, arrakasta handiz. Horregatik animatu da beste bat antolatzera. Maiatzeko ikastaroari dagokionez, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara Sakanako Mankomunitateko egoitzan bilduko dira, Lakuntzan, klase teorikoa egiteko. Larunbata eta igandean, berriz, 10:00etatik 17:00etara gauzatuko da ikastaro praktikoa. Hitzordua Mankomunitatean jarriko dute eta bertatik kotxeak antolatuko dira

eskalatu beharreko tokira joateko. Norberak eguneko bazkaria eraman behar du.

Ikasleek ondoko materiala eraman behar dute: arnesa, katuak eta kaskoa. Ezinezkoa bada, antolakuntzak utziko ditu.

## Izena ematea

Maiatzaren 13ra arte, Mank-en (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com). Prezioa: 39 euro.



Aurreko ikastaroetako bat.

## BTT - Mendi txirrindularitza

Lakuntzar bat Marokoko 10.  
Titan Desert gogorrean

Munduko mendi txirrindularitza proba gogorrean dabil Jabier Gartzandia lakuntzaria eta senior mailako sailkapenean lehena da

Apirilaren 26an hasi zen eta maiatzaren 2an despidituko da Marokoko 10. Titan Desert Garmin BTT edo mendi txirrindularitza proba, munduko gogorrenetako bat, basamortua tarteko. Bertan lakuntzar bat dabil lehian, bizitokia Bartzelonan duen Jabier Gartzandia. Berak eta beste 600 txirrindularik etapa gogor ezberdinei egin behar diete aurre, basamortuan, puntako etapa luze eta ikusgarri.

Lehenengo etapan, Boumalne Dades eta Aknioun artekoan, 35.a sailkatu zen Gartzandia. Astearteko bigarren etapan, Aknioun eta Toughach artekoan, 43.a iritsi zen helmugara eta asteazkenean, Toughach eta Lambouare artekoan, 48.a. Sailkapen orokorrean



Jabier Gartzandia ezkerrean, Bartzelonako Probike taldeko txirrindulariekin.

Jose Silva dago buruan (12:40:18), eta Jabier Gartzandia 36.a da (14:20:30), senior mailako lehena.

Atzo Lambouare eta Erg Znai guarte arteko etapaz goen jokoan (98,9 km), basamortuko eremu gogor bat

## Txirrindularitza

Aramendia Bizkaiko  
Loreak-eko txapelketa

Emakumezkoen Euskaldun Txapelketako liderra da iturmendierra

Apirilaren 24tik 26ra bitartean jokatu da emakumezkoen Bizkaiko Loreak Txallengea. Bertan lehiatu da Maialen Aramendia iturmendierra (CAF Transport Engineering), kadete mailan.

Ostiralean Elorrion 1,4 km-ko erlojupekoa izan zuten eta kadeteen mailan Maialenek irabazi zuen (1:51) eta Txallengeko lider jarri zen. Larunbatean Barrundian lehiatu ziren, Ozaetan, Txallengeko 2. etapa izateaz gain Euskaldiko Txapelketa ere bazena.

Valladolideko Isabel Martinek irabazitako etapan hirugarrena sailkatu zen Maialen eta Euskaldiko txapelkunordea izan zen. Gainera, Txallengeko lidergoari eustea lortu zuen. Eta igandean Abadiñon jokatu zuten hirugarren etapan Maialenek garaipena lortu zuen esprint oso estuan eta etapa irabazteaz gain, Bizkaiko Loreak Txallengea irabazi zuen. Aipatzekoa da ere Txallengeko hiru etapak Emakumezkoen Euskaldun Txapelketarako baliagarriak zirela, eta txapelketako liderra dugu iturmendierra, Nekane Gomez gipuzkoarraren aurretik.

## Txirrindularitza

Juniorrek hitzordua  
Etxeberrin

Gaur, maiatzaren 1ean, ostiralean, 10:30ean abiatuko da Lacturale Junior Trofeoa, Lacturale granjatik

Juniorrek lasterketa dute gaur, ostiralean, Etxeberrin: Lacturale Junior Trofeoa. Lasterketa Etxeberriko Lacturale granjatik abiatuko da eta 71 km-ren ondoren Goldaritzen izango du helmuga.

## UNZILLAREN ERORIKOA

Asteburuan juniorrek bi proba zituzten Gipuzkoan. Zoritxarrez, Quesos Albenizeko Alex Unzillak erorikoa izan zuen eta ospitaletik pasa behar izan zuen. Ez du ezer larririk baina denboraldi bat eman behar du korritu gabe. Bestalde, eskola mailakoek igandean eman zioten hasiera denboraldiari, Berriobeitin. Lan polita egin zuten sakandarrek.

## Atletismoa

Adur Senar  
hamaikagarrena  
Zizurren

Igandean 22. Donejaku bideko lasterketa jokatu zen Zizurren. 207 korrikalarik osatu zuten 10 km-ko proba. Etxeko atletak gailendu ziren, Javier Nagore (32:59) eta Maitane Melero (38:53). Adur Senar lakuntzaria ongi moldatu zen eta 11.a sartu zen helmugan (35:32). Kaxi Estarriaga 49.a izan zen (39:47), Joxe Mari Mercero 174.a (50:17) eta Saray Garasa 179.a (50:56). Bestalde, 5 km-ko proba Ion Anduezak irabazi zuen (18:17). Asier Estarriaga 11.a sailkatu zen (21:54).

## Txirrindularitza

## Ailetz Lasa hirugarrena Altsasun

Sakandarrak 38. Burunda Txirrindularitza Taldeko Trofeoan

1.	Alfonso Gaston	1:20:29
3.	Ailetz Lasa (Q.Albeniz)	1:20:29
5.	Josu Etxeberria (Q.Albeniz)	1:22:48
12.	Hodei Zia (Q.Albeniz)	1:23:49
13.	Beñat Etxezarreta (Irabia)	1:23:49
14.	Oihan Vinagre (Q.Albeniz)	1:23:49
17.	Iosu Jaka (Q.Albeniz)	1:23:49
29.	Imanol Galarza (Irabia)	1:24:26
32.	Jabier Mitxaus (Irabia)	1:24:26
33.	Ander Rosado (Irabia)	1:25:03
41.	Unai Lizarraga (Irabia)	1:26:59
46.	Iker Cerviño (Irabia)	1:28:15

38. Burunda Txirrindularitza Taldeko Trofeo Alfonso Gastonek eraman zuen

Larunbatean kadeteen mailako 38. Burunda Trofeo jokatu zen, 51 km-ko proba, Burunda aldean jokatu zena. Tartean Burundako Quesos Albeniz taldea eta Aralarreko Irabia lehiatu ziren. 46 txirrindularik osatu zuten proba ederra. Helmugara hirukote bat iritsi zen lehen-

dabizi, eta norgehiagoka estua izan ondoren El Caserio Valsay taldeko Alfonso Gaston gailendu zitzaizen Lizarrako Juan Riañori eta Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasari. Lasa ziordiarra lehen urteko kadeteen sailkapenean lehena izan zen. Taldeka Lizarra gailendu zen eta Quesos Albeniz bigarrena izan zen. Gastonek ere mendiko sailkapena irabazi zuen.

**ARNANZEN TAILERRETIK IORTIARA:** Astelehenean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean Koldo Arnanzzen pintura tailerreko ikasleen erakusketa zabalduko da, 17ra arte ikusgai. +www.guaixe.eus

# kultura >>

## Musika **Enrike Zelaia** omentzeko

**Larunbatean, 19:00etan, Altsasuko Burunda pilota-lerkuan. Haize Berriak bandarekin batera Fran Idareta, Javier Ramos, Gorka Hermosa, Joxan Goikoetxea, Javier Lopez Jaso, Iñaki Dieguez eta Enrike Zelaia akordeoilariak eta Garikoitz Mendizabal txistularia, Irurtzun, Etxarri Aranzat eta Altsasuko musika eskoletako haur abesbatzak eta abesbatzak ariko dira**

**Bandaren proiektua kontzertuak, film labur batek eta disko baten grabazioak osatzen dute. 30.000 euroko aurrekontuari aurre egiteko mezenas izatera gonbidatu dute**

**H**aize Berriak bandak Enrike Zelaia, XX. mendeko Euskal Herriko musikari eta artista ospetsuenetariko bat omentzeko Zatoz, agur! emanaldia prestatu du. Kontzertu hutsa baino gehiago da, Haize Berriak bandak sortu duen proiektu handiena bihurtu baita. Larunbateko emankizunetan 200 bat artistek parte hartuko dute. Zelaia omentzeko proiektua Zatoz, agur! izenburua duen film laburrarekin eta disko baten grabazioarekin osatuko da.

Emanaldiaren ideia bandako zuzendari Luis Orduña eta Joseba Salegi zinema zuzendari altsasuarren duela sei urteko hizketaldi batean du oinarria. Bitarte horretan omenaldia zena proiektu "erraldoi" bihurtu arteko garapena izan du.

### Kontzertuak

Sei piezek osatuko dute larunba-



teko errepertorioa. Emanaldia bandako kide zen eta hil zen Esther Irisarriren omenez enkargatutako Variaciones Agur Jaunak obrarekin abiatuko da. Eta bandak eskatutako azken obraren moldaketarekin despedituko da emanaldia: Enrike Zelaia Xuberoa, Rapsodia Vasca. Castellongo Oscar Senenek banda eta akordeoirako egokitu du. Orduñak azken horretan azaldu duenez, "Zelaia-aren obra handia da. Bere obratan orkestrarakoena da".

Bandako zuzendariak gogora ekarri duenez, Haize Berriak bandak 15 bat obra mustu ditu. "Banda eta akordeoirako partitura gutxi daude eta tokia egin diogu akordeoiari hainbat obratan, lehengotik hasita". Hala, akordeoian oina-



rritutako errepertorioa izanen da omenaldikoa. Fran Idaretaren Taupadak ikuskizuneko Lingua navarrorum obra berreskuratuko

dute. Joselu Anaiak taldeko kide batek sortutako Sustraia obra mustuko da, musika eskoletako haur abesbatzengatik.

Eta, horretarako, bandak Euskal Herriko akordeoilari handien laguntza izanen du. "Garaikidea, jazz... Akordeoiaren bide ugariak munduan barna zabaltzen ari diren musikariak ariko dira gurekin: Fran Idareta, Javier Ramos, Gorka Hermosa, Joxan Goikoetxea, Javier Lopez Jaso, Iñaki Dieguez". Sona handiko Garikoitz Mendizabal txistularia ere izanen da kontzertuan.

Eta haiekin batera Irurtzungo,

Etxarri Aranzako eta Altsasuko musika eskoletako haur abesbatzak eta hiru herrietako abesbatzak. Bandaren 17 urteko ibilbidean Zelaia-arekin batera proiektu batean ariko den aurreneko aldia izanen da.

### Sakanako diaspora iruditan

Joseba Salegik omenaldiari izena emandion film laburra, Zatoz, agur!, zuzendu du. Film laburreko protagonistak banda bereko musikariak dira. Xuberoa rapsodia musika du oinarri eta pieza berda soinu-banda. Horregatik, aldi berean, musikariak hura interpretatzen entzun eta pantailan antzeztzen ikusteko aukera izanen da.

Agur, Zuberoa leozaguna duen piezan Zelaia joan den mendean Zube-

roatik Parisera izan zen emigrazioaren berri ematen du. Orduñak dienez, "Rapsodiaren bariazio ezberdinetan bere oroimenez emozio-maila deskribatuz doa, unerik goreneari bere agurraren onartzearekin bukatzeko". Salegik "zerbait historikoa egin behar" kontakizuna Sakanara ekarri du, "gaur egun gure ibarrean gazteen emigrazioa gertatzen ari delako".

Hori bandarekin islatu nahi izan du, bandako kideak aktore bihurtuz. "Bandako protagonistak bere une historikoan kokatzen ditut

eta, aldi berean, Altsasuko erreferentzia kulturalak protagonismoa hartu dute. Azken horietan Zelaia utzitako arrastoaren aitortza ere badago". Film laburraren izaera musikala nabarmendu du Salegik. "Larunbatean soilik irudia emanen da eta bandak zuzeneko musika jarriko du. Erroka bien arteko sinkronia izanen da". Film laburraren ekoizpenean aritutako Josu Rubio bandako kideak esan digunez bandako kide gehienak agertuko dira pantailan.

### Aurrekontuari aurre egiteko mezena premian

Kontzertua, film laburra eta diskoa. Hiru horiek aurrera eramateko 30.000 euro inguru behar ditu Haize Berriak bandak. Aurrekontua estaltzeko bide bat sarrerak izanen dira. Bainan nahiko aez denez, mezenas bila abiatu da banda. Nafarroako Gobernuaren Mezenazgo Legearen Mecna zigilua lortu du bandak. Horren arabera Zelaia omentzeko proiekturako diru ematen dutenek mezenas izendapena hartuko dute eta diru ekarpenagatik errenta aitortzen diru des-

### Diskoa

Larunbateko errepertorioa disko batean jaso nahi du Haize Berriak bandak. Grabazio estudioa sartuko da banda. Nola gauzatu aztertzen ari dira orain.

grabazioa izanen dute.

Desgrabazioa	
Mezenasaren ekarpena	Itzulketak
50 euro	40 euro
100 euro	80 euro
150 euro	120 euro
+150 euro	%40koa
Enpresak	Itzulketak
300 euro arte	%30koa
+300 euro	%20koa

### Harremanetarako

Mezenas izan nahi duenak bandako kideren batekin hitz egin behar du. Bestela, banda haizeberriak@hotmail.com e-posta helbidera idatzi dezake. Iortia kultur guneko harreraren ere galdetu daiteke.

Egitaraua	Egilea	Interpreteak
<b>Obra</b>		
Variaciones Agur Jaunak	J. Vicente Egea	Banda, Javier Ramos eta Garikoitz Mendizabal
Irribarrea	Xabier Zabala	Banda, Iñaki Dieguez eta Garikoitz Mendizabal
Sustraia	JL Ruiz de Gordo	Banda, Javier Lopez Jaso eta haur abesbatzak
	Alberto Giz Urroz orkestrazioa	
Lingua navarrorum	Fran Idareta	Banda, Fran Idareta, Joxan Goikoetxea eta abesbatzak
	Alberto Giz Urroz orkestrazioa	
Xuberoa, rapsodia vasca	Enrike Zelaia	Banda eta akordeoilariak
	Oscar Senen orkestrazioa	
Joseba Salegiren Zatoz, agur! film laburraren mustutzea		

# Sortzaile sakandarren lanak ibarreko Juul hauteskundeetan hautatuak

Ostegunean, Liburuaren Egunarekin batera, Euskal Herriko ikastoletan Juul hauteskundeak egin ziren. Literatura zaletasuna sustatzeko ikastolen ekimenetako bat dira hauteskunde horiek eta ikasleek euren gogoko liburu eta ilustratzaileak aukeratu zituzten. Botoa telematikoki eman zuten handienek. Hautestontzian, berriz, txikienek. Sakanan 773k. Ikasleak, gainera, hauteskunde prozesuan mahaiko arduradun izan ziren. Hala, hauteskunde sistemaren prozedura ikasteko aukera izan zuten.

Euskal Herri mailako emaitzantansortzaile sakandar bakarra ageri da: Jon Arretxe. Berak idatzitako *Beti iparralderantz* liburuak 12 eta



## Ilustratzaileak

1. Jose Mari Morcillo "Morkots"
2. Juan Luis Landa
3. Cristina Fernandez
4. Mikel Valverde

16 urte bitarteko gazteen artean bigarrena izan da. Sakanan, maila berean lehen hautatua izan da. Bai-

Adina	Izenburua	Idazlea	Urtea	Argitaletxea
3-6	Liburu bat	Herve Tullet	2013	Ttartalot
	Hiru txerrikumeak	Joxantonio Ormazabal	2014	Elkar
	Arroxali	Joxantonio Ormazabal	2014	Elkar
6-8	Agur, Agur!	Castillo Suarez	2015	Erein
	Lata baten gorabeherak	Begoña Ibarrola	2013	Elkar
	Lau arrautza errun zituen oiloa	Enric Lluch	2014	Erein
8-10	Beti iparralderantz	Jon Arretxe	2014	Erein
	Nur eta irlandar gnomoa	Toti Mtz. de Lezea	2013	Erein
	Nur eta kobazulo liluragarria	Toti Mtz. de Lezea	2014	Erein
10-12	Beti iparralderantz	Jon Arretxe	2014	Erein
	Nur eta haize-arrosa	Toti Mtz. de Lezea	2012	Erein
	Gizajo baten egunkaria, Egun zakurrak	Jeff Kinney	2012	Alberdania
12-16	Beti iparralderantz	Jon Arretxe	2014	Erein
	Ezekiel nora ezean	Jasone Osoro	2014	Elkar
	Xahmaran	Jon Arretxe	2014	Erein

na ikasle sakandarrek ibarreko beste sortzailearen aldeko hautua egin

dute ere: Castillo Suarez, Jose Mari Morcillo eta Cristina Fernandez.

# Aldazen sormen trastelekuak segida izanen du

**Etxarriarrak prestakuntza saioetarako sona handiko dantzari atzerritarrak Nafarroara ekartzen segituko duela iragarri du**

Nik izan ez nuen aukera eskaini nahi diet etorkizunean Nafarroako dantzariari. Horixe azaldu du Laida Aldaz Arrieta dantzari etxarriarrak Trastero creativo esperientzia martxan jarri ondoren. Aldazek dantza garaikideko dantzariak trebatzeko ikastaroa antolatzeko ekimena atera berri du estreina-

koz. Helburua, Nafarroako dantzariari kalitatezko entrenamendua eskaintzea, teknika berriak bereganatu dituzten eta jatorri ezberdineko dantzarien arteko elkartrukea sustatzeko.

David Zambrano artista handiarekin ikastaroa antolatu zuen apirilaren 13tik 17ra. Hark flying low edozoruarekin harremanetan dantza egiteko teknika irakatsi zien ikasleei; "lurretik nola sartu eta ateratu, ahalegin gutxiena erabiliz", azaldu digu Aldazek. Gaineratuz



inprobisazioa ere landu zutela.

Zambranoren esanetara 40 ikasle trebatu ziren Atarrabiako kultur etxean. Euskal Herrikoak ziren gehienak, bi sakandar barne. Baita Madril, Valentzia, Galizia, Bartzelona, London eta Singapurreko-

ak ere. Gainera, Zambranok berak hilaren 15ean, Iruñeko Gaiarre antzokian, inprobisazio labur bat eskaini zuen. Ondoren, Aldazek hura elkarriketatuz, "jendeak zertan dabilen jakin dezan eta haren bizitza nolakoa den jakin dezan".

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## S3DAk bere lehenengo laburmetraia aurkeztuko du

Sakana Animatika 3D Enplegu Tailerreko parte-hartzaileek Arte gaztearen 2015eko Topaketan finalistak. Haien ekoiztutako lehen film laburra atzo eman zuten Nafarroako Filmotekan, 20:00etan.

Erkuden Ruiz Barroso

Multimedia profesionaltasun Mziurtagiriarekin amaitu aurretik, hau da, klaseak hartzen zituzten bitartean, Sakana Animatika 3D Enplegu Tailerreko (S3DA) parte-hartzaileek ikasitako praktikan jartzen hasi ziren. Praktikak egiteko hainbat proiektu egin behar zituzten. Haien artean euren hasieratik bukaeraino sortu duten Frigo Time film laburra.

## Lehen ekoizpena

Idea guztien artean bat aukeratu zuten. Ideia hori moldatu eta horrekin gidioak egin behar ziren. Proiektuak aurrera eta atzera egin zuten, bitartean beste hiru proiektuetan lanean zebiltzan. Hortaz, bilerak eta eztabaidak izan ondoren, garrantzia handiagoa hartu zuten proiektuak eta lehentasunezko lan bat bezala jarri ziren. Pertsonaiak egin, riggeatu eta handik gutxira animatzeko ordua izan zen. Pixkanaka Frigo Time-n lehenengo kapitulua jaio zen.

S3DA tailerrean sortutako proiektuak izendatzeko talde bat da. Eta S3DAren lehenengo lana aurkezteko garaia iritsi da. Arte Gaztearen 2015eko Topaketa lehiaketara bidali zuten lana eta atzo arratsaldean Nafarroako Filmotekan eman zuten film laburra, beste zazpi lanekin batera.

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Kondairak III:

Japoniako kultura, ohizkoak dira mamuak, izpiritua eta jainkoak. Eta horrela izanda, erraz asko ere sortzen dira kondaira berriak, gertakizun xume bat ahoz aho eraldatuz, kontakizun sinesgaitz bihurtzen den arte. Zoritxarrez, gure mundu osoan hedatuta dagoen kultura matxista dela eta, kondaira hauen protagonista gaiztoak emakumeak dira, emea beti mendekati eta gorrotoz betetako izaki bihurtuz. Hona hemen bilduma txiki bat.

#### Kuchisake-onna

Aitzinean samurai baten emazteak adarrak jarri omen zizkion behin baino gehiagotan, eta gizonak men-

deku bezala, masailak moztu zizkion emakumeari bere "irribarrea" luzatuz belarri batetik bestera, inork gehiago maite ez zezan. Geroztik, kale ilunetan dabil Japonian ohikoak diren maskara batakotan jarrita. Eta emakume gazteei galdera berdina egiten die beti aurregia agertu gabe. Ederra al naiz? Begi politikatuenez, lehenengo erantzuna beti baiezkoa izaten omen da; baina, ondoren, maskara kendu eta berriro galdera bera egiten du. Pertsona izutu egiten bada, bigarren galderari ezetz erantzuten badio edo ihes egiten badu, guraize handi batuk erabiliz, gazteari ere ahoa moztuko dio belarri batetik besteraino. Lasai asko bigarren galderari ere baietz erantzuz-

ten bada, alde egiten uzten zaituela esaten da.

#### Teke-Teke

Kondairak dioenez, ikaskideek askotan bere lepotik barre egin ondoren, eta haien isekak atzera utzita korrika edo nork daki, behar bada ikaskideek bultzatuta, trenbidera erorita hildako neska gazte baten izpiritua da teke-teke delakoa. Trenak, bere gorputza erditik zaitu eta gerritik behera ez du ezer ereez. Hankak galdu ondoren, bere eskuen gainean ibiliz mugitzen da, eta ibiltzean "teke-teke" delakoa soinua egiten du lurraren kontra. Neskak, sega bat darama gainean, eta gauez harrapatzen bazaitu, zu ere erditik moztuko zaitu, gizarteare-

kiko mendekua bezala.

#### Hanako-San

80. hamarkadan jaiotako kondaira dugu. Berez jatorria ez da oso zehatza, ez dakigu zein den Hanakoren istorioa. Baina bertako kultura eta gazteen arteko heriotzen estatistikak kontuan izanda, posibleena, eskolako komuna batean bere buruaz beste egin zuen ikasle baten kontakizuna izatea da. Japoniako eskoletan bizi den gazte itxurako mamua da Hanako ("San", Japonian hurrei izenetan jartzen zaien atzizkia da). Eskolako hirugarren pisuan, nesken hirugarren komunean ezkutatzeko, eta komuneko atea 3 aldiz deitu ondoren agertuko zaizu, gona gorri



batez jantzita eta pertsona ausartena beldurtzeko gai den begirada hotza duelarik.

# Dantza jaialdia Irurtzunen

**Ostiralean, 18:00ean, kalejira eta 18:30ean dantza jaialdia plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu frontoian izanen da**

**T**olosako Udaberri eta Irurtzungo Orritz dantza taldeek euskal dantzen jaialdia eskainiko dute. Bi taldeak eszenatokian txandakatuz ariko dira. Orritzeko Joseba Royok jakinarazi digunez, eurek Nafarroako eta Gipuzkoako dantza errepertorioa

eskainiko dute. “Taldea jende berria sartu da eta hori baliatuz errepertorioa berri dugu”, azaldu digu. Jaialdien ondoren, ohi dutenez, bi taldeetako kideek elkarrekin afalduko dute, parrandarako atea zabalik utzita.

Gaur egun 24 bat neskek eta 11 mutilek osatzen dute Orritz. Aurtun Imozko eta Sakanako herrietako festetan arituko direla aurreratu digu Royok. Urtero moduan,



udan beste dantza talde batekin bisita trukatu du Orritzek.

## Baratzea

Irurtzungo dantza taldeak bere etorkizuna bermatzeko dantzari berrien baratzea zaintzeko lan

handia egiten du. Baratzea “osantsu” dagoela esan digu Royok. Bestalde, 15 eta 16 urte bitarteko dantzariak, Lizarrako, Iruñeko eta beste herri batzuetako taldeekin batera garila akaberan Alemaniara joan direla aurreratu digu.

# Dantzari txikiak Altsasun

**Larunbatean, 11:45etik aurrera, Altsasun barna ariko dira**

**U**rretxuko Lurra eta Sakanako Etorkizuna dantza taldeetako dantzari txikiak kolore, mugimendu eta doinu beteko dituzte Altsasuko kaleak larunbat eguerdian. 90 bat dantzari txiki izanen dira eta guztiak musika eskolan elkartuko dira, 11:00etan eta 11:45ean, kalejiran abiatuko dira. Burundar Txistularien doinura eta Altsasuko erraldoien laguntzaz Zumalakarregi plazatik, San Joan



kaletik eta Iortia kultur gune paretik pasako dira, ibilbidea Foru plazan despeditzeko. Eguraldiak

lagunduko ez balu Zelandiko kiroldegira lekualdatuko litzateke dantza emanaldia.

Plazan 13:00etan eskainiko duten dantza jaialdian, baita kalejiran egindako geldialdietan ere, Euskal Herri osoko dantzak eskainiko dituzte dantzari txikiak.

## Etorkizuna

Etorkizuna dantza eskolak ehun bat ikasle inguru ditu, bospasei urte dituzten gazteenetatik helduetaraino. Haietako batzuk soinu zahar eta auresku txapelketetako finaletan ariko dira maiatzaren 16an eta 23an. Maiatzaren 30ean Etxarriko dantzari txiki egunean ere izanen dira, eta hurrengo egunean ikasturte akaberako emanaldia eskainiko dute. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

# Etxarriko irakurle taldeak azken bi datak zehaztu ditu

**H**au Etxarri Aranazko irakurle taldearen bigarren ikasturtea da. Adostutako euskarazko liburu baten irakurketa egin eta gero hilean behin biltzen dira irakurleak udal liburutegian. Ikasturte akaberarako bi datak zehaztu berri dituzte. Hurrengo hitzordua maiatzaren 7an izanen da, ohi bezala 19:00etan. Orduan Kirmen Uriberen *Mussche*-ren inguruan hizketatuko dira. Edurnek koordinatuko du saio hori.

Eta sasoa despeditzeko garagarriaren 11rako jarri dute hurrengo hitzordua. Ana Jakaren *Ez zen diruagatik* liburuaz ariko dira



orduan. Liburuak irakurri eta literatura hizketaldian parte hartu nahi duenak atea zabalik ditu.

# Bertsolaritzan bidea egiten



**Z**ortzi bertsolarik jokatu zuten Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ostiralean, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen. Haien aretan Idoia Granizo eta Ekain Alegre izan ziren. Aitziber Grados ere han izan zen, baina ez zuen parte hartu. Neurtu zen zor-

tzikotetik bigarren fasera lau pasa ziren eta Joanes Illarregi leitzarrrak lortu zuen txapela janztea. Bera eta Maddalen Lopez lesakarra izanen dira garagarriaren 27an Orion jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan.

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margotzea

*Ez gelditu oroigarririk gabe*  
Zure ezkontza,  
**400€**  
-tik hasita

**NIK**  
ASENSIO

Iortia Plaza 1  
948 469 023  
ALTSASU

**GORA MAIATZAREN LEHENA!**

**12:00 FORU PLAZA ALTSASU**

**M1 LANGILEOK BORROKAN**  
Euskal Herria aldaketa bidean

**LAB**



# Nonerabili

## AINHOA ESTETIKA

### IRURTZUN

Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

## ASENSIO

### ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea (eskaintza ez metagarria).

## IL PADRINO

### ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

## SARABE TXOKOA

### ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

## VALCARCE

### OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

## EDERNE ILEAPAINDEGIA

### LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, makilaje ukitua doan.

## GUAIXE

### KOMUNIKAZIOA

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

## XAGU

### ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

## LIBURUNDA

### ALTSASU

%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

## GOIKO LOREDENDA

### ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

[www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)-en zerranda osoa ikusgai



## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 48%	euria: 53%	euria: 60%	euria: 75%	euria: 45%	euria: 43%	euria: 30%	
Min: 12 Max: 19	Min: 13 Max: 21	Min: 15 Max: 20	Min: 11 Max: 16	Min: 9 Max: 19	Min: 10 Max: 19	Min: 9 Max: 20	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	22.5	5	37.6
Etxarri A.	21.5	3	24
Altsasu	21.5	4.5	23.1
Aralar	14	0.6	32.6
Urbasa	17.8	1.3	31.8

: ilargiaren aldia >>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	4	11	18	25

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Apiribileko

## bazkide sarituak

- 1.- **Koro Ijurra Goñi**  
(Altsasu)
- 2.- **Izaskun Igeltz Lazkano**  
(Lakuntza)
- 3.- **Marian Mendoza Gonzalez**  
(Altsasu)
- 4.- **Xabier Errazkin Beltza**  
(Etxarri Aranatz)

**MAIATZEKO SARIAK:**

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezero aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artzako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gaztezero aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artzako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

# >> 11 galdera

Saioa Sayas eta Gorka Pascua

Altsasuko futbol talde mistoa

Testua: Maialen Huarte Arano



Altsasun nesken futbol taldea osatu nahi dute hurrengo denboraldirako.

**1. Aurtengo txapelketa irabazi duzue. 12 urte dituzue taldekideek. Ongi aritu zareten seinale, Saioa?**

Aurten hasi gara futbol 11n jokatzen eta tamaina hartzen ari gara oraindik. Zelai erdian jokatzetik zelai osoan aritzera aldea dago, baina, bai, moldatzen jakin dugu eta irabazten ere bai. Beraz, talde indartsua garela esanen nuke.

**2. Neska bakarra zara taldean. Gainerako neskek ez al dute interesik futbolearen aritzeko?**

Badira nire adineko neskek futbolearen aritzen direnak. Agurainera joaten dira edo Beasainera. Bada neska gehiago futbolearen aritzeko gogoarekin, orain erronka da horiek animatzea eta izen ematea datorren ikasturtean hemen Altsasun sortu nahi dugun talderako. Modu horretan herrian bertan sortu genezake neska taldea.

**3. Gorka, lehen aldia da futbol 11n jokatzen dutela eta irabazi egin dute. Nola lortzen da hori?**

Gogotsu ari dira eta berehala jakin dute zelai osoan jokatzera moldatzen. Konpromiso handia hartu dute taldekideek, entrenamendu guztietara etortzen dira, eta emaitzak hori guztia islatzen du. Aurrerapen handiak lortu dituzte denbora gutxian.

**4. Altsasun zer egin daiteke nesken taldea sortzeko?**

Neskek beste kiroletan izen ematen dute, nesken futbol talderik ez dagoelako. Komeni da nesken taldea sortzea. Zelai egokia dago herrian, eta aukera aproposa da futbolearen aritzeko. 10 neskekin nahikoa izanen litzateke taldea

osatzeko.

**5. Nola prestatzen dituzue entrenamenduak Gorka?**

Entrenamenduak ez dira bakarrik baloiaren inguruan izaten. Mendira korrika egitera joaten gara, ariketa desberdinak egiten ditugu baita jolasak ere. Dibertigarriak dira entrenamenduak, ongi pasatzen dute. Lagun giroan aritzen dira. Diziplina eta baloreak ere lantzen dira. Bi eguneko ordu eta erdi aritzen gara. Gure inguruak eskaintzen duena aprobetxatzen dugu beroketa egiteko.

**6. Denboraldia hasi baino lehen helburuak markatzen dituzue.**

Zerrenda bat egin eta helburu horiek betetzen saiatzen naiz ikasturtean. Ez nuen xede gisa txapelketa irabaztea, baina, dena ongi lantzearekin lortu dute. Entrenamenduetara joaten diren guztiek eta konpromisoa hartzen duten guztiek jokatzen dute.

**7. Noren aurka aritu zarete txapelketan?**

Iruñean jokatzen ditugu norgehiagoka gehienak. Lakuntzako eta Etxarrikoen aurka ere aritu gara.

**8. Heldu den urtean nesken taldea sortzeko zer da beharrezkoa?**

2002 eta 2006 artean jaiotako nes-

kek eman dezakete izena, Altsasukoe eta Sakanako beste herrietakoek. Altsasuko zelaian entrenatzea da asmoa, oso egokia delako. Izena posta elektronikoen bidez eman daiteke: paskua@hotmail.com edo telefono honetara deituta: 619 860 336.

**9. Altsasuko Kirol Elkartearen laguntza jasotzen ari zarete heldu den ikasturteari begira.**

Bai, eurekin batera ari gara saiatzen nesken taldea sortzen. Maiatzaren 7an, 19:15ean Gure Etxea eraikineko 1. solairuan bilera egingen dugu, denak elkartu eta taldea aurrera ateratzen saiatzeko.

**10. Irailean ekinen zenikete talde berriarekin?**

Irailetik maiatzera izaten dira denboraldiak. Dena dela, ekainean izaten dira izen emateko epeak eta horregatik hasiak gara dagoeneko mugitzen.

**11. Txapelketa irabazita, Nafarroa mailan ari zarete orain onenen artean lehiatzen.**

Nafarroa mailan posturik onenen gelditutako taldeak ariko dira orain, onena nor izanen den lehiatzen. Lau talde ari gara. Sei partida izanen dira: Sanduzelai, Itaroa-Uharte eta Gazte Berriak izanen ditugu aurkari. Lehena etxean berdinu egin dugu.

12.632

bisita martxoan

jarri zure iragarkia

guaixe.eus web orrian

publizitatea@guaixe.net 948 562 107